

hh  
hik hasi

Aritz Larreta  
Guztiok izan beharko genuke feminista  
Gizarte-hezitzailea eraikitzen  
LOVIPI lege berria  
Arte hezkuntza  
Euskadiko Orkestra  
Irantzu Idoate Funosa

CO  
CO  
N



ERAIKITZEKO GARAIA DA

# ONGIZATE EMOZIONALA LANTZEKO BALIABIDEAK ETA JARDUERAK!



# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## ERAIKITZEKO GARAIA DA

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hezkuntza lege berri bat egiteko prozesua abian da, eta horren aurretik hezkuntza akordioa erdietsi nahi da alderdi politikoen artean eta hezkuntza eragileen parte hartzearekin. Akordioaren oinarrien nondik norakoak biltzen dira errepotaje nagusian, eta baita Hezkuntza Plazarak egin duen deialdia hezkuntza berritzeko eta aktiboki modu eraikitzailean parte hartzeko.

## ELKARRIZKETA / 18

### ARITZ LARRETA

Haur Hezkuntzan bezala, Lehen Hezkuntzan ere paradigma aldaketa egiteko beharra ikusten da, gero eta gehiago. Behar horri erantzunez "Lehen Hezkuntza eraldatzen" izeneko bi urteko formazioa eskainiko du Hik Hasik. Aritz Larreta irakaslea izango da formazioaren arduradun pedagogikoa eta harekin hitz egin dugu Lehen Hezkuntza eraldatzeko beharrari buruz. Hezitzaileen esku hartzearen gaineko gogoeta sistematikoa eta partekatua behar dela azpimarratu du Larretak.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Azaleko argazkia:** Foku.

**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANTZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2022-2-28).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

## 5 EDITORIALA

Une historikoan, hobe jarrera eraikitzailearekin

## 10 GAI NAGUSIA

Eraikitzeke garaia da

## 18 ELKARRIZKETA

### ARITZ LARRETA

"Lehen Hezkuntzan ere hezitzaileon esku-hartzeaz gogoeta sistematiko eta partekatua egin behar dugu"

## 24 ESPERIENTZIAK

Denok izan beharko genuke feminista

## 26 EKARPENAK

Nafarroako haur eskolak borrokan

## 28 EKARPENAK

Heziketa fisikoaren alde

## 30 EKARPENAK

Gizarte-hezitzailea eraikitzen

## 34 AHALDUNTZE ESKOLA

Uharte Arte Garaikideko Zentroa

## 36 GALDEIDAZU

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko LOVIPI lege berriak zer aukera ireki ditzake eskolaren esparruan?

## 39 ARGITALPENAK

## 40 PROPOSAMENA

Euskadiko Orkestra

## 42 ATZEKO ATETIK

Irantzu Idoate Funosa

Mugimendu autonomoa



# Une historikoan, hobe jarrera eraikitzailearekin

## editoriala

JOXE MARI AUZMENDIREN LEKUKOARI JARRAIKI, EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZA SISTEMA PROPIORANTZ URRATS BERRI BAT EMATEKO GARAI HISTORIKOAN EKARPEN ERAIKITZAILEAK EGITEA DAGOKIGU.



**U**ne honetan oso gogoan dugu Joxe Mari Auzmendi **Hik Hasin**. Eta ez bera hil zela bi urte pasa direlako soilik, baizik eta hezkuntza akordioa lortzeko bidea ireki delako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan.

**Hik Hasiren** sorreratik amesten zuen akordioak lortzearekin; “elkarrekin”, “elkartuko gara” eta horrelako esapideak ziren bereak. Guztiok bezala, berak ere bere pentsamenduak eta iritziak zituen, baina horren gainetik edo horrekin guztiarekin edonorekin elkartzeko eta elkarrekin bidea egiteko exenplua zen.

Nora? Euskal Herri osorako euskal hezkuntza sistema propiora. Horretan eragiten aritu zen eta, orain, 30 urte geroago alderdi politikoen eman dute urratsa: adostasunera heltzeko eta oinarritzko hezkuntza akordio bat egiteko gai izan dira. Ez da guztiok amesten genuen akordioa izango, baina herri gisa adostasunera heltzea ez da makala; are gehiago, eraldaketarako oinarritzko eta funtsezko abiapuntua da.

Alderdi politikoen oinarritzko akordioa aurkeztu dute, eragileek ekarpenak egin, eta orain, herritarrok eraiki behar dugu. Prest egon behar dugu orain arte egindako urratsen atzetik beste bat egiteko. Ez dezagun

lehen unetik kontra egin, eman diezaiozun aukera abagune honi. Denborak esango du zer emango duen, baina une historiko hau ilusio garaia da. Guztioi dagokigu orain ekarpenak egitea; ekarpen eraikitzaileak, lubakietatik atera eta herri ikuspegitik heldutasunez erantzutea eta eraikitzea. Oraingo hezkuntza ereduak ez gaituztelako asetzen, herren daudelako, itoginak dituztelako teiltuko leku askotan.

Argi dago adostasuna lortzeko eta eraldatzeko saiakera egin behar dela eta badago horretan lagundu dezakeen faktore bat: ikasleak. Jar gaitezen ikasleen lekuan. Zer da hoberena ikasleentzat? Hasi ratioetatik eta titulartasuneraino, euskaratik eta euskal curriculumetik pasaz. Zertarako nahi dugu hizkuntza eredu orokortua? Ikasle guztiek bi hizkuntza ofizialetan erraztasunez komunikatzeko eskubidea izan dezaten. Titulartateak hainbesteko garrantzia al du ikasleak ongi baldin badaude? Nola eragiten die irakasleen egonkortasun ezak? Herri ikuspegia garatzeko ezagutzarik jasotzen al dute? Bizikidetzaren lehenetsiz eta aniztasunean hezten al dira? Guztiek al dute aukera-berdintasuna?

Erantzun diezaiegun galdera horiei ikasleen lekuan jarrita, eta horrek gure arteko adostasunak gainditzen lagunduko digu, edo beharko liguke.

---

”Argi dago Euskal Errepublika behar-beharrezkoa zaigula hezkuntza sistema burujabe bat erdietsiko badugu”

Nora Salbotx

# HILEKO IRUDIA

---





## AZTERKETAK EUSKARAZ EGITEKO ALDARRIA

Azterketak euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatu zuten joan den martxoaren 4an Euskal Herri osoko ikastoletan. Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako ikasleek brebeta eta baxoa euskaraz egiteko eskubidea izan behar dutela aldarrikatu zuten milaka lagunek Ikastolen Elkartearen deialdiari erantzunez. Hizkuntza eskubideen alde gogor borrokatzeko prest daudela azpimarratu zuten guztiek eta Frantziako hezkuntza agintariak Seaskaren aurka soilik ez, ikastola guztien aurka ari direla eta azterketak euskaraz egiteko aukerarik eza “euskaraz bizi nahi duen herri baten kontrako eraso” dela adierazi zuten. Izan ere, Frantziako Hezkuntza Ministerioaren zirkularrak azterketak euskaraz egiteko aukera zabaldu zuen arren, Bordeleko Akademiako errektoreak atea itxi die Seaskaren eskaerei.

**Argazkia: Baionako Bernat Etxepare  
Lizeoko elkarretaratzea**  
Baionan, 2022ko martxoaren 4an

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## HAMAR IKASLETIK SEI EUSKALDUNTZEN DITU D EREDUAK

EAEko Eskola Kontseiluak 2017 eta 2019 bitartean egindako azterketaren arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako D ereduko hamar ikasletik lauk ez dute euskarazko oinarrizko mailarik (B2) DBHko 2. maila amaitzen dutenean. Porzentaia gora egiten du nabarmen A ereduaren kasuan: ikasleen % 98,4k ez du oinarrizko mailarik euskaraz. ISEI, Irakats Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko erakundeak egindako azterketak utzitako datuak dira, eta datu horietan eta Eustat-ek eta Hezkuntza Ikuskaritzak helaraziko datuetan oinarrituta, hizkuntza erduei buruzko azterketa sakona egin zuen Eskola Kontseiluak. Azterketak utzitako datuek erakusten dute gero eta gehiago direla euskarazko ereduaren alde egiten duten familiak, baina agerian geratu da ikasleak euskalduntzeko eta aniztasunari erantzuteko zailtasunak daudela.



## BERMEOKO ESKOLA BATEAN IZANDAKO SEXU ABUSUAK SALATU DITUZTE

Hainbat biktimak esan dutenez, abusuak 1976tik 1981era gertatu ziren, Bermeoko Jose Done ikastetxean. Menesiarrek kudeatzen zuten eskola, eta garaiko zuzendaria da sexu abusuak egiteaz akusatu dutena.

Bilboko Elizbarrutiak sexu abusuaren auzian Elizak duen erantzukizuna aitortu eta gutxira atera dira argitara Bermeoko kasuak. Bizkaiko Elizak sexu abusuaren aferan duen erantzukizuna onartu du, eta jakinarazi du Bilboko Elizbarrutiak 2019an sortutako batzordeak hogeitaz salaketa jaso dituela orain arte. Salaketa horietatik seik apaizei eragiten diete. Bestalde, Espainiako Gotzainen Biltzarrak erabaki du abokatu bulego bat kontratatzea, kanpo auditoria egin dezan Elizaren meneko erakundeetan izandako sexu abusuak ikertzeko.

## IKASTETXE BARRUAN MASKARAK KENTZEA ESKATU DUTE PEDIATREK

Kataluniako Societat Catalana de Pediatria elkarteak pandemia kontrolatzeko ikastetxeetan aplikatzen diren neurriak bertan behera uzteko eskatu du eta ekimen horrekin bat egin dute Euskal Herriko hamasei pediatrik. Haurrek gaixotasuna gehienetan oharkabean pasatzen dutela edo birusak sintoma arinak eragiten dituela esan dute eta hala ere, "neurri asko helduekin hartutakoak baino zorroztagoak izan direla" salatu dute. "Gaur egun, eskoletan maskara erabili behar dute eta burbuila taldeetan berezita daude" eta horrek guztiak haur eta nerabeengan ondorio

negatiboak sortzen dituela ohartarazi dute pediatrik: "Garapen emozionalean, hezkuntzan, sozializazioan eta osasun mentalean ondorioak dakartza".

Koronabirusa gainerako infekzio biralen moduan kudeatzea eskatu dute eta haurrek gizartean duten lekuari buruzko gogoeta egitea proposatu dute: "Pediatrik, beste profesional batzuen modura, umeak garapenaren etapa guztietan laguntzen ditugu, eta haien ahotsak eta beharrak kontuan hartzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Gure erantzukizuna da merezi duten errespetua eta zaintza defendatzea".

# HIZPIDE IZANGO DA

## 'HERRI ANTOLAMENDUA HERRI HEZITZAILEAREN IKUSPEGITIK' JARDUNALDIA ETA LIBURUXKA

Martxoaren 26an egingo dute Baztanen 'Herri antolamendua herri hezitzailearen ikuspegitik' jardunaldia Oinherri eta Hiritik At-ek antolatuta. 2021 urte hasieran jarri ziren harremanetan Oinherri eta Hiritik At elkarteetako kideak, hirigintza eta hezkuntza arloetan eraikitako diskurtsoak bateratzeko, elkar elikatzeko eta elkarrekin aberasteko saiakera egiteko gogoz. Elkarlan horren emaitza da argitaratu duten 'Herri antolamendua herri hezitzailearen ikuspegitik' liburuxka eta baita izen bereko jardunaldia ere. Liburuxkan bizitzak erdigunean jarriko dituen hirigintza eredu parte-hartzaile baterako gakoak bildu dituzte eta jardunaldiaren helburua herri antolamendua hezkuntzatik eraikitzeko marko teorikoa eta praktikoa proposatzea da. Hezkuntza eta hirigintza etengabeko elkarreraginean daude eta biak uztartuta, herriak antolatzeko eredu berri bat osatzea da erronka nagusia. Parkeak soilik ez, herri antolamendu osoa herri hezitzailearen ikuspegitik berrantolatzeko beharra ikusten dute antolatzaileek.



## EUSKARAZKO IRAKASLE LANPOSTU GEHIAGO IPARRALDEAN

Datorren ikasturtean euskarazko 5,5 irakasle lanpostu gehiago izango dira Iparraldeko eskola publikoetan. Hala jakinarazi du François-Xavier Pestel Pirinio Atlantikoetako akademia ikuskariak. Baionako Malegarie eskolan frantseseko postu bat itxi dute eta euskarako erdi bat zabalduko dute. Donibane Garaziko eskolan eta Urruñako Olheta auzoko eskolan, berriz, frantseseko postu bana kendu eta euskarako bana irekiko dute. Lapurdiko hamar eskola publikotan euskarazko postu erdia zabalduko dute eta beste lautan postu erdiak kenduko dituzte. Urtez urte egiten du gora euskaraz ikasi nahi duten ikasleen kopuruak eta euskarazko irakasle kopurua emendatzea eskatzen du errealtate horrek.

## 0-6 URTE BITARTEKO CURRICULUMA JASOTZEN DUEN FORU DEKRETUA OSATU DU NAFARROAKO GOBERNUAK

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamenduak Haur Hezkuntzako 0 eta 6 urte bitarteko zikloaren irakaskuntzarako curriculuma jasotzen duen foru dekretua osatu du. Testuak etapa bakoitzerako aurreikusitako gaitasun zehatzak jaso ditu arloz arlo, eta baita ziklorako ezarritako ebaluazio-irizpideak eta oinarritzko jakintzak ere. Horrekin batera, eskolatzearen hasieratik garatu beharko diren funtsezko gaitasunak bildu ditu dokumentuak.

Foru dekretuaren arabera, ikastetxeek eskola ordutegiko denbora tarte bat eskaini beharko diote curriculumen zati bat euskaraz garatzeari A ereduaren kasuan, eta D ereduaren kasuan, tarte bat gaztelaniaz egin beharko dute. Era berean, eskolek atzerriko hizkuntza bat ere landu beharko dute. 0-3 plataformak kezka agertu du puntu horregatik: "Tristea da, baina ingelesari bidea irekitzen zaio eta baliteke datorren ikasturtean haur eskoletan hiru hizkuntza nahastea".

Gobernuak Gardentasun atarian argitaratu du testua eta ekarpenak egiteko aukera zabaldu du. 0-3 Plataformak euren proposamenak aurkeztuko dituztela iragarri du.



Ilusio garai berriak iritsi dira hezkuntzara. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hezkuntza lege berri bat egiteko prozesua ireki da, Nafarroan ere badira mugimenduak eta Iparraldetik jakin-minez dira so. Alderdi politiko nagusiek hezkuntzan oinarrizko akordioetara iristeko apustua egin dute Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eta hezkuntza eragileak ekarpenak egiten ari dira. Egungo hezkuntza sistemaren hutsuneak ikusita, lege berriak eraldaketarako aukerak ireki ditzake. Asko azpimarratzen da denon artean egin beharreko legea eta bidea dela, denontzat onuragarria izan dadin. Euskal Herriak behar duen hezkuntza sistema propiorantz urrats esanguratsua izan daiteke, Espainiako eta Frantziako estatuetatik datozen ereduetan zurrunki geratu gabe. Euskal Herriko hezkuntzaren ibilbidea eta ezaugarriak bilduko dituen proposamena izan daiteke. Saiatzeak merezi du.

# GAIA: ERAIKITZEKO GARAIA DA

Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako Hezkuntza Akordioa: aukera baliatzeko unea

**E**usko Jaurlaritzak 2023rako Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako hezkuntza lege berri bat egingo duela iragarri zuen, eta horren aurretik hezkuntza akordio bat egin nahi zuela alderdi politikoen artean eta hezkuntza eragileekin partekatuta. Asmo horrekin, Eusko Legebiltzarrak legealdi honetan etorkizuneko euskal hezkuntza sistemari buruzko hitzarmenaren oinarriak zehazteko ponentzia osatzea onartu zuen 2021eko urrian. Ponentzia horren lehen zereginetako bat adituen eta eragileen iritzia entzutea izan da eta 2021eko urte amaierako hilabeteetan ehun eragile eta aditu inguru pasa ziren bertatik ekarpenak eginez. Hala, 2022ko otsailaren 8an aurkeztu zuen Batzordeko batzordeburuak txosten-proposamena: *Euskal hezkuntzaren eraldaketarako oinarriak*. Martxoaren 4an amaitu zen behin-behineko txostenari ekarpenak egiteko epea eta martxoaren 18an bozkatu dituzte alderdi politikoen zuzenketak. Tarte horretan ahalik eta akordio zabalena lortzen ahaleginduko dira eta martxoaren 28an emango diote behin betiko oniritzia txostenari. Apirilaren 7an Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak onetsi beharko

du eta ondoren Eusko Jaurlaritzak dokumentu horretan oinarritutako hezkuntza legea egiteari ekingo dio. Legea 2022ko udazkenerako idatzia egotea aurreikusten da.

Nafarroan ere mugimenduak badira. Hezkuntza kontseilari Carlos Gimeno Nafarroako Eskola Kontseiluari itun bat egiteko enkargua eman zion urtarrilean eta “Nafarroako hezkuntzaren aldeko itun soziala” jardunaldiarekin eman zitzaion hasiera prozesuari. Aragoiko Autonomia Erkidegoko 2016ko dokumentu bat oinarri hartuta abiatu du Eskola Kontseiluak itun hori egiteko lana eta lau hilabeteren buruan parlamentura igorriko da lantzen duten dokumentua. Hainbat arlotan Aragoiko egoerak ez du zerikusirik Nafarroakoarekin, hizkuntzaren kasu, eta hortaz, hainbat eragilek zaila ikusten dute Nafarroari egokitutako eta haren beharrak aseko dituen ituna izatea aterako dena. Horrez gain, denbora epe oso laburra iruditzen zaie hezkuntzak duen garrantzia kontuan hartuta eta adituen ekarpenak jasotzeko eta haiek parte hartzeko aukerarik ez egoteak ere ez du laguntzen.



## GAIA: ERAIKITZEKO GARAIA DA



Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean Hezkuntza Akordioa egiteko ehun ekarpen inguru aurkeztu ziren eta horietako bat Hik Hasirena izan zen.

Horietako bat **Euskal Hezkuntza Zerbitzua** da eta horri lotutako **kontratu-programa**. Hezkuntza sareen arteko bizikidetza eta kohesioa bideratzeko Euskal Hezkuntza Zerbitzua sortzea proposatzen da. “Legeak ezarritako printzipio eta helburuak betetzen dituzten ikastetxeek osatuko dute Euskal Hezkuntza Zerbitzua, legeak ezartzen dizkien konpromiso eta betebeharrak beren gain hartzen dituztenak, alegia. Hezkuntzaren zerbitzu publikoa ematen duten eragileen artean eskola publikoak funtsezko rola du. Zerbitzu publikoa ematen duten eragileen izaera juridikoa administrazioaren zein beste eragile batzuen ardurapen egon, ezartzen diren baldintzak betetzean dago gakoa”. Aurrerago zehaztasun gehiago ematen dira: “Ikastetxeak eskubidez eta betebeharez parekide bilakatzen dira administrazioaren eta gizartearen aurrean eta orain arteko hezkuntza tradizioen arteko konfluentzia irudikatuko da legean (...). Euskal Hezkuntza Zerbitzuak baliabide publikoz sostengatzen diren ikastetxeak hartuko ditu, dena dela bere izaera juridikoa, beti ere segregazioak eta gizarte-bazterketa gainditzeko ahaleaginean aktiboki jarduten duten neurrian”.

Txostenean aurrera jota, honakoa zehazten da: “Ikastetxe bakoitzak Hezkuntza Sailarekin adostutako Plan Estrategikoaren jarraibideak burutzeko tresna juridikoa, ekonomikoa, finantzarioa eta plangintza estrategiaren alorreko programa-kontratua definitu eta adostuko du”.

Proposamen honek egungo sistema publikoaren barruan planteamendu berri bat dakar, konfluentzia helburu duena, eta ikuspegi desberdinak daude horren gainean. Denek defendatzen dute hezkuntza sistemak publikoa izan behar duela; haatik, publikotasuna ulertzeko moduan daude desberdintasunak: batzuek egungo sistema publikoa defendatzen dute, dagoen moduan, publikoa administrazioaren esku dagoena da; beste batzuek, aldiz, publikotasunaren ikuspegi zabalagoa dute eta kontzeptu horren barruan herrigintzatik sortutako ekimenak barne hartzen dituzte, herritarrek sortuak izanik publikoak direla argudiatuz.

Elkarrekin Podemos-IUk egin duen zuzenketan adierazi du “titulartasun publikoko ikastetxeek izan behar dute euskal hezkuntza-sistemaren ardatz egituratzailea, eta

Hezkuntza sareen arteko bizikidetza eta kohesioa bideratzeko Euskal Hezkuntza Zerbitzua sortzea proposatzen da.

## GAIA: ERAIKITZEKO GARAIA DA

Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako Hezkuntza Akordioa: aukera baliatzeko unea

hamar urteko epean hegemoniko bihurtzea proposatzen dugu”. Steilasek dio gaur egungo Euskal Eskola Publikoa jarri behar dela erdigunean eta “publifikazio progresibo baterako markoa zehaztu” behar dela titularitasun juridikoa moldatuz eta publifikazio marko legala ezarri. Ikastolen Elkarrekin bat egiten du Euskal Hezkuntza Zerbitzuaren proposamenarekin. “Bertan legeak ezartzen dizkien konpromiso eta betebeharrak bere gain hartzen dituzten ikastetxeak egongo dira, administrazioaren titularitatekoak izan ala ez izan. Bat egiten dugu horretarako denok eskubide eta betebeharrak izan behar ditugula zehazten duen puntuarekin”.

Ikastolen Elkarrekin eta Steilasek faltan bota dute Hezkuntza Zerbitzuan egoteko ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak eta betebeharrak ez agertzea. Ildo horretan, EH Bilduk ekarpen bat egin du hamalau baldintza eta betebeharrak zerrendatuz: segregazioaren kontrako konpromiso erreala, curriculum eta ebaluazio irizpide berdinak, euskara ardatz duen eredu eleaniztun orokortua, hezikidetza derrigorrezkoa, sexu-segregazio eza, laiktasuna, gobernantza demokratikoa, hezkuntza proiektu komunitarioak, hezkuntza planifikazio lokala, kontratazio garden eta demokratikoa, azpiegitura partekatua, irabazi asmorik eza, doaktasuna eta barne eta kanpo auditoriak.

Konfluentziarako bidea nola egingo den ikusteke dago. Orain arteko egoeran aniztasuna izan da nagusi. Orain, legeak denak berdintzera edo aniztasuna mantentzera jo dezake. Eta horrek aniztasunaren inguruko eztabaida dakar. Aniztasuna aukera-berdintasunarekin lotuta dagoen kontzeptua da, eta aukera-berdintasuna eta berdintasuna ez ei dira gauza bera. Aukera-berdintasuna bakoitzaren aniztasuna eta egiteko modu desberdinak errespetatzea da eta neurri berdintzaileek ez dute zertan denok berdinak izatea ekarri behar. Dagoen aniztasuna, egiteko modu desberdinak eta bakoitzak orain arte egindako ekarpenak balia daitezke zerbaite berria, aniztasuna eta ez uniforme egiteko.

### Udalen eta tokiko administrazioen esku-hartzea

Askotan entzun da hezkuntza ez dela eskolaren zeregin soilik, gizarte osoarena baizik. Akordioan ideia

hori jasotzen da eta hori gauzatzeko deszentralizazioa proposatzen da; udalek eta foru aldundiek parte-hartzea hezkuntzaren antolaketan eta eskumen batzuk izateko bidea irekitzea. Europako zenbait herrialdetan gertuko kudeaketa lehenesten dute eta gertutasun horrek dakartzan abantailak probesten dituzte. Ildo horretatik joz, dokumentuan ikusten da, “batetik, zenbait baliabide komunitario artikulatzeko ikasleen ongizatearen eta heziketaren mesedetan; eta bestetik, hezkuntza komunitate guztiaren partaidetza bilatu eta hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko uztarketa sustatzeko”. Zeregin horretan honako eduki edo jardunetan egingo zaio kontsulta Tokiko Eskola Kontseiluari:

- hezkuntza-premiak identifikatzeko, eskaintza banatzeko eta ikasleak eskolatzeko irizpideak zehazteko, hiri-plangintzatik eratorritakoak barne;
- hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleen eskolatzeko egokia eta orekatua bermatzen laguntzeko jarduerak eta behar diren neurriak hartzeko, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo beste izaera bategatik bereiztea saihesteko;
- ikastetxeen funtzionamenduari eragiten dioten udal-jarduerak egiteko;
- eta udalerria eremu duten patronatuak, partzuergoak eta hezkuntza erakundeak eratzeko.

Ildo horretan, Oinherrik proposatzen du herri hezitzaileen filosofia Tokiko Hezkuntza Kontseiluen egiteko moduen eta edukien erdigunean egotea. “Organo honetan hezkuntza ez-formalaren presentzia, parte-hartzea eta estrategikotasuna berebizikoak direla uste dugu”.

### Partida jokatzera

Ñabardura eta ekarpen asko egin zaizkio txostenari eta oraindik bidea egin behar du. Eta bide horretan parte hartzea da garrantzitsua orain. Partida jokatu beharra dago egungo sistemaren gabeziaren eta ezineta gelditu gabe, baldin eta sistema berri eta eraldatzaile bat lortu nahi bada. Herri ikuspegi batetik bakoitzak bere ekarpena egiteko garaia da. Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako egingo den hezkuntza legeak eragina izan dezake Nafarroan eta Iparraldean eta etorkizuneko euskal hezkuntza sistema propioaren bidean urrats bat gehiago izan daiteke.

Tokiko Eskola Kontseiluak eratzea aurreikusten da udalen parte-hartzea bultzatzeko eta hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko uztarketa sustatzeko.

## GAIA: ERAIKITZEKO GARAIA DA



## Eredu berri baten aldeko deialdia

**M**artxoaren 5ean hezkuntzarekin konprometitutako Euskal Herri osoko herritarrak bildu ziren Hernanin, 2006an onartu zen Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa berresteko eta bizi dugun une historiko honetan akordio hori berritzea aldarrikatzeko. “Une hartan herri gisa behar dugun hezkuntza eztabaidatzeko eta adosteko abiapuntua zela esaten zen”, gogorarazi zuen Nora Salbotx Hezkuntza Plazarako kideak, Amaiurko eskolako andereñoak eta **Hik Hasiko** kideak. “Geroztik hezkuntzari herri gisa begiratzen dioten proposamen eta planteamendu anitz mahaigaineratu dira urteotan eta ekarpen horientatik iritsi gara gauden lekura”.

“Eskubideetatik konpromisora” salto egiteko unea dela aldarrikatu dute eta ekiteko unea dela azpimarratu dute manifestuan: “Badakigu milaka garelako hezkuntza eskubideak bermatuko dituen hezkuntza sistema eraldatzearen alde gaudenak. (...) Guretzat ez da aukera bat gauden lekuan gelditzea, gauza berdinak egiten jarraitzeak emaitza ezberdina emango lukeela pentsatuz. Elkarrekin pentsatzea eta herri bezala jardutea dagokigu erronka handiei aurre egin ahal izateko”.

Une honetan Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako hezkuntza lege berri bat egiteko abiatu den prozesuaren baitan, “uste dugu koituntura berri honetan aukerak badire-

la, duela 30 urte egin zenaz gaindiko bertze zerbait mahaigaineratzeko. Uste dugu ausartzeko eta erronkari adarretatik heltzeko garaia dela”.

Kezkatzen ditu egoera berriaren aurrean agertu diren hainbat kritikek, “kritika egiteaz gain, beste aukerarik, planteamendurik edo alternatibarik mahaigaineratzen ez denean ez baita eraikitzen”. Horregatik, Hernanin elkartutako herritarrek eta manifestuari atxikimendua eman dioten 250 lagunek legea idatzi zain egon ordez eragin egin nahi dute. “EAEn abiatutako prozesuarekin hazi berri bat ereiteko aukera dagoela ulertzen dugu, eta hortik sortuko den landareak ematen dituen fruituak beste herrialdeetara ere iritsiko direla” adierazi zuen Salbotxek.

Horrela, manifestuan hazi horrek izan behar dituen ezaugarriak plazaratu zituzten: hezkuntzarako, inklusiorako eta euskalduntzeko eskubidea, eraldaketa pedagogikoa eta metodologikoa, autonomia eta parte-hartzea, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa eta erabakitze eskubidea eta hezkuntza burujabetza.

Manifestua osorik ikusteko: [http://labur.eus/Hernaniko\\_adierazpena](http://labur.eus/Hernaniko_adierazpena)

Atxikimendua bideratzeko: [hezkuntzaplazara@ni.eus](mailto:hezkuntzaplazara@ni.eus); [plazarahezkuntza@gmail.com](mailto:plazarahezkuntza@gmail.com)

## Euskal hezkuntza sistema hobetzeko aukerak ikusten dituzte herritarrek

Zerk bultzatuta etorri zara Hernanira Hezkuntza Deialdia egitera eta agerraldian parte hartzera?



**Maialen Idoate**

Eskola publikoko eredu elebidunean euskara formatzailea Iparralde osoan Seaskako gurasoa



**Mikel Illarregi**

Nafarroako eskola publikoko irakasle jubilatua

“Honat etorri naiz alde batetik interes handia dudalako Hegoaldean gaur egun gertatzen ari denarekin. EAE-ko hezkuntza lege berri horrek ilusio handia sortzen digulako guri Iparraldean, jakinez gure egoera aski larria dugula. Ainitz apreziatu dut gaurko adierazpenean lurraldetasunari egin zaion ekarpena. Herrialde batean egiten denak haziak ereiten ditu eta gu hori hartzeko prest gara. Beraz, nik lurraldetasunarekiko ikuspegia dut eta hortik interes handiz jarraituko dut. Hezkuntza Plazara ekimenaren lantaldean parte hartuko dut, bistan dena, eta ekarpenak egiten ahal baditugu edo parte hartzen ahal badugu hor izanen gara”.

“2006ko Oinarrizko Hezkuntza Akordioan parte hartu nuen eta gaur ere etorri naiz orduan abiatu zen lana oraindik bete edo burutu gabe dagoelako. Oraindik zer egin badagoela ikusten dut. Askotan zer asmo onak izan ditugun ohartzen naiz, baina sarritan ez gara iritsi helburuetara edo ez dugu saltoa nahi bezain luzea egin, adibidez, euskal curriculumaren gaian. Horrelako asmoak eta nahiak aurrera eramateko oso indartsu eta konbentzimendu handiz hasi izan gara eta askotan bidean hortxe geratu gara.



**Aitor Fernandez de Pinedo**

Laudio ikastolako administrazioko langilea, informatikaria eta komunikazio arduraduna Aiaraldeko Euskara Kontseiluko kidea

Gaurkoarekin zera ikusten dut: orain planteatzen diren puntu hauek guztiak gure ahotan egon dira aurretik, gure barnean eta gure bihotzean ere bai, eta oraindik betetzeko asko gelditzen da. Orduan, herri bezala apustu handi bat dago, bete behar dena, egin behar dena eta horretarako horretaz guztiarekin konprometitu eta konbentzitu dagoen jendea behar da.

“Lege berri baten atarian hezkuntza komunitate osoko kideek parte hartzea beharrezkoa ikusten dut, eta komunitate oso anitza garelako sentitzea ere bai. Denok ikusi behar dugu geure burua akordio horretan. Eta horretarako, denok batzen gaituzten eremuak eta ekimenak egitea lortu behar dugu. Batez ere horrek ekarri nau hona gaur”.

Nik orain beste ikuspegi batetik ikusten dut dena, jubilatua berri nagoelako, baina betebeharrak hori ikusten dut eta bada apustua egiteko unea. Gauzak garbi ikusten direnean eta hasitako bidea eten egin dela sumatzen denean, hasi beharra dago berriro. Inguruan konbentzitutako jendea ikusten duzunean, apustu hori egin behar dela dioena, indartu egiten zara eta beste motibazio bat ematen dizu. Horregatik izan da garrantzitsua gaur hemen elkartzea, indar hori sentitzea eta eraikitze motibazioa badela ikustea”.

## GAIA: ERAIKITZEKO GARAIA DA



**Edurne Larrañaga**  
LABeko kidea eta gurasoa

“Nik uste dut testuinguru oso garrantzitsu baten aurrean gaudela. Agerraldian komentatu den bezala, herri ikuspegi baten aldeko hautua egin behar da, eta gaurko adierazpenak justuki horixe biltzen du. Nik neuk argi dut EAEko biztanle izan arren, ez dela izango nik desio-ko nukeen hezkuntza lege bat, baina uste dut urrats bat eman dezakeela gaur egun hezkuntza sistemak dituen hainbat blokeo desblokeatzeko edo desblokeatze bide horretan jartzeko. Alde horretatik uste dut ezinbestekoa dela oinarrizko hezkuntza akordio bat egitea ezberdinen artean. Duela 16 urte ere ezberdinen arteko akordioak eraikitzea oso garrantzitsua zela hitz egiten genuen eta egoera aldatu arren antzeko testuinguruan aurkitu gaitzke”.



**Joxe Garmendia**  
EHUko irakaslea

“Unibertsitatetik begiratuta, urratsak batera eman behar ditugula ikusten da. Derrigorrezko hezkuntzako ikasle horiek gero unibertsitatera etorriko dira eta guk ere bat egin behar dugu. Lege honek prespektiba hori izan behar duela uste dut. Lotura bat behar du hezkuntza sistemak, hezkuntza lege propio batekin”.



**Mari Karmen Garrido**  
Aramaioko eskola publikoko irakaslea

“Gure herrirako eta euskal hezkuntza bultzatzeko lege berri on bat defendatzera etorri naiz. Eta izan dadila behingoz denok batera egiten dugun zerbait, denon onurarako eta denon ekarpenekin. Orain dela 30 urtetik, aurreko legetik hona, ez dakit asko aurreratu dugun; orduan, bultzada ematera etorri naiz, ea aldatzen den, ea zerbait egiten dugun, ez hain mingarria. Izan dadila Euskal Herriko hezkuntzarako onura dakarrena, nahi dugun gure Euskal Herriko hezkuntzarako.”

Argi dago dagoenak ez zuela erantzunik eman. Azkenean proposatu zen bakarra zera izan zen: ikastetxe pribatuei edo ikastolei sare publikoan sartzea, baina sarea bere horretan zegoen moduan, inolako aldaketarik gabe. Orduan, hori da nahi ez duguna. Ez dugu berriro ere epe bat zabaltzerik nahi ikastolak publikifikatzeko, ez da hori. Esaten den konfluentzia hori nahi dugu benera, eta gauza bietatik edo hirugarren batetik onak diren ekarpenak eta esperientziak hartzea. Adibidez, udal mailan antolatzea. Nik uste dut hori izango litzatekeela hoberena eta nik horri deituko nioke publikoa eta ez gaur egun dagoenari”.



**Inge Zubero**  
Lapuebla de Labarcako Assa ikastolako langilea  
Ikastolako gurasoa

“Orain arte prentsan edo kalean bolo-bolo ibili den mezua bakarra izan da, nik ulertzen dudanagatik erresistentziatik sortzen dena. Baina badago mezu propositibo bat; aukera bat zabaldu da eta aukera hori jokatzeko borondatea badago. Orduan, horri helduta nator hona. Utzi ezetxean kokatutako mezuak alde batera, eta etorkizuneko ortzimugan egon ahal den hezkuntza sistema propio horretan edo horren alde lan egin dezaegun. Uste dugun baino jendarte zabalagoa dago horren alde lan egiteko prest, eta momentu honetan ematen du bakar-bakarrik uste bat dagoela kalean, eta ez da bakarra: beste bat badago, niretzat eraikitzaileagoa den mezu bat. Orduan, horregatik eman diot atxikimendua gaurko adierazpenari. Uste dudalako horrek bai daukala etorkizunera begirako proposamen bat”.



“Lehen Hezkuntzan ere hezitzaileon esku-hartzeaz gogoeta sistematikoko eta partekatua egin behar dugu”

# ELKARRIZKETA: ARITZ LARRETA

## IRAKASLEA ETA 'LEHEN HEZKUNTZA ERALDATZEN' FORMAZIOAREN ARDURADUN PEDAGOGIKOA

Dagoeneko ikastetxe askotan egin dute paradigma aldaketa Haur Hezkuntzan, eta ondorioz, Lehen Hezkuntzan hobekuntza premia handia sumatzen da. Behar horri erantzunez, eta Haur Hezkuntzan bederatzi urtetan eskaini den formazioaren ildotik, bi urteko formazio berria eskainiko du datorren ikasturtean **Hik Hasi**: 'Lehen Hezkuntza eraldatzen' izenekoa. Lehen Hezkuntzako tutore zein espezialistei dago zuzendua, eraldaketa-prozesuan hasita edo hasteko

gogoz daudenenei, baina baita, aholkulari, zuzendari, ikasketa-buru edota arduradun pedagogikoei ere. Aritz Larreta izango da formazioaren arduradun pedagogikoa. Izatez, Tolosako Laskorain ikastolako irakaslea da. HHko zein LHko tutore, psikomotrizista eta hizkuntza proiektuko dinamizatzaile izan da, besteak beste, eta azken lau urteotan, Ikaselkar hezkuntza argitaletxeko KIMU proiekturako matematika arloko ikasmateriala sortzen dihardu.



**Hik Hasiko kide zara aspaldian. Orain formazioaren arduradun pedagogikoa izango zara. Zure ibilbidean nola kokatzen duzu egiteko hau?**

Zuk esan bezala, aspalditxotik naiz **Hik Hasiko** kide, hain zuzen ere, 2007tik, baina bi urte lehenago, 2005ean, parte hartu nuen estreina-koz **Hik Hasiko** Udako Topaketetan. 2007an, **Hik Hasik** bidaia pedagogikoa antolatu zuen Finlandiara eta, esan liteke, bidaia hartan gonbidatu nindutela **Hik Hasiko** kide izatera.

Oso eroso eta, are gehiago, koherente sentitu izan naiz beti **Hik Hasin**. Nik hezkuntza ulertu eta bizitzeko dudan moduarekin guztiz bat datoz **Hik Hasik** dituen izateko eta egiteko moduak. Beraz, hastear den formazio berri honen arduradun pedagogikoa izatea opari moduko bat da niretzat. Erantzunkizun handikoa, baina, finean, opari bat.

Izatez, Tolosako Laskorain ikastolako irakaslea naiz. Hainbat lanetan aritu naiz ikastolan, hala nola: Haur zein Lehen Hezkuntzako tutore, psikomotrizista, *Euskaraz Bizi* proiektuko teknikari, hizkuntza proiektuko dinamizatzaile... Azken lau urteotan, ordea, Ikastolen Elkarrean dihardut Ikaslekar hezkuntza argitaletxeko *KIMU* proiekturako matematika arloko ikasmateriala

sortzen. Arizmendi ikastolako Leire Aranarekin batera ari naiz zeregin horretan.

**Zer-nolako premia ikusten duzu lanean ari diren Lehen Hezkuntzako hezitzaileentzat gradu osteko formazio bat antolatzeko? Zer-nolako premiak daude, oro har, Lehen Hezkuntzan?**

Nik uste, egon, premia handia da-goela. Haur Hezkuntzako hezitzaileentzat ere antzeko formazio bat eskaintzen du **Hik Hasik**, eta arrakasta handia du. Beraz, nik uste dut, Lehen Hezkuntzako hezitzaileen artean ere harrera ona izan dezakeela gradu osteko formazio honek.

Badira jada urte batzuk Haur Hezkuntzan eraldaketa pedagogikoa hasi zenetik. Euskal Herrian, asko dira Haur Hezkuntzan paradigma aldaketa egin duten ikastetxeak. Eraldaketa horren testuinguruan hazi eta hezi diren haurrak Lehen Hezkuntzara iritsi ahala, hasi da Lehen Hezkuntzan ere mugimendua, baina, iruditzen zait, hausnarketa sakon baten premia dugula; izan ere, irudipena dut, Haur Hezkuntzan dituzten egiteko modu berberak ekarri nahi izan ditugula Lehen Hezkuntzara, askotan, aurrez hausnarketa pedagogiko sakonik gabe.

Lehen Hezkuntzako lehen mailetan, esaterako, espazioak-eta eraldatzen hasi gara, baina espazio horietan hezitzaileok egin beharreko esku-hartzearen gainean zalantza dezente ditugula esango nuke. Hain zuzen ere, gure esku-hartzearen gaineko hausnarketari heldu nahi zaio gradu osteko formazio honekin, hau da, espazio, denbora, material eta abarrez hausnartzea ezinbestekoa da. Horrez gain, gure esku-hartzeaz gogoeta partekatu eta sistematikoa egitea da ezinbestekoa dena.

**Markoari dagokionez eta LOMLOE-ren testuinguruan, zer aldaketa datoz Lehen Hezkuntzara?**

Hasteko eta behin, komeni da argitzea LOMLOE Espainiatik datorren lege bat dela eta, beraz, eragitekotan, Euskal Herriaren zati bati bakarrik eragingo diola. Beraz, ez da inolaz ere Euskal Herri osorako lege marko bat. **Hik Hasiko** kide izanda, hori esan beharra nuen; izan ere, sorreratik bertatik oso presente dugun aldarrikapena da hori **Hik Hasin**. Beste hainbat kontu bezala, **Hik Hasiren** ustez, Euskal Herrian bertan eta euskal herritarren artean adostu beharko litzateke hezkuntza curriculum, eta ez Espainia eta Frantziatik datozenen egokitzapen

batzuekin konformatu. Behin hori argituta, esan behar da, zirriborro fasean dela oraindik LOMLOE delako legea. Beraz, ez dakigu ziur zer-nolako eragina izango duen EAE eta Nafarroako curriculum dekretuetan.

Arlo pedagogikoari dagokionez, esan dezakedana da kompetentzietan oinarritutako curriculum garapena izango duela. Espainiako aurreko beste bi legeek ere (LOE eta LOMCE) halaxe zuten, baina, nire ustez, kompetentzietan oinarritutako hezkuntza inplementatzeko estrategia egokirik ez zuten aurreikusi. Alegia, kompetentzien gaineko ikuspegia gelaratzeko, nire ustez, tresna eta baliabide gutxi. Esate baterako, zer esan nahi du “egiten eta ekiten ikasi” kompetentziak? Zer osagai ditu kompetentzia horrek? Nola ulertzen da “egiten eta ekiten ikasi” kompetentzia Lehen Hezkuntzako lehen zikloan? Eta, bigarren zikloan? Nola esku-hartu beharko genuke hezitzaileok ikasleek kompetentzia hori garatzeko? Nola egin kompetentzia horren garapenaren jarraipena?

Bada, hain zuzen ere, galdera horiei guztiei erantzuten saiatuko gara gradu osteko honen bidez. Diskurtsoetik praktikara, hitzetatik ekintzetara jauzi egiteko baliabideak eta estrategiak eskainiko zaizkie hezitzaileei. Garrantzitsua da, noski, kompetentzien inguruko diskurtsoa integratuta izatea, baina diskurtso hutsa ez da nahikoa; ezinbestekoa dena da diskurtso hori praktikan jartzeko moduez eta aukerez pentsatzea eta gure eguneroko praktika kompetentzien begiradatik diseinatzea eta antolatzea.

Argitu nahi nuke, kompetentzietan ari garenean, ez garelako kompetentzien ikuspegi neoliberal batetik ari, hau da, ez gure nahi kompetentzien gaineko diskurtso hau efikaziarekin, etekinarekin, enpresa mundurarekin... lotzerik. Bizitzarako kompetentziak ditugu guk buruan, bizitzan zehar sortuko zaizkigun egoerei eraginkortasunez erantzuteko beharko ditugun kompetentzietan eta, hor, arlo edo diziplinekin lotutako kompetentzietan gain, badaude beste izaera bat duten kompetentziak ere, hala nola: izaten ikasi, elkarrekin bizitzen ika-

si, pentsatzen eta ikasten ikasi, egiten eta ekiten ikasi... Baliteke gu oso nahastuta egotea, baina, irudipenadut, azken horietan dugula hezitzaileok zailtasunik gehien, horiek direla gure eguneroko praktikara ekartzea gehien kostatzen zaizkigunak. Nola esku hartu ikasleek kompetentzia horiek garatu ditzaten? Nola ebaluatu? Bada, formazio honetan, diziplinarteko kutsua duten kompetentzia horiei ere erreparatuko diegu.

**Zeuk esan duzun bezala, Haur Hezkuntzan ikastetxe askok egin dute dagoeneko eraldaketa, eta pixkanaka, ume horiek goraka datoz. Haur horiei erantzuteko, zer-nolako eraldaketa egin behar da Lehen Hezkuntzan?**

Bai, horrela da. Haur Hezkuntzan eraldaketa pedagogiko hori bizi izan duten haurrak badatoz poliki-poliki Lehen Hezkuntzara. Lehen ere hitz egin dugu honetaz. Zer-nolako eraldaketa behar den Lehen Hezkuntzan? Galdetzea errazagoa da erantzutea baino, baina ausartuko naiz gako batzuk ematen.

Lehenik eta behin, esango nuke, ezinbestekoa dela Haur eta Lehen Hezkuntzaren artean trantsizio lasai eta koherente bat eraikitzea, alegia, Haur eta Lehen Hezkuntzaren artean zubiak eraikitzea. HH5 bukatu duen haur bat eta LH1en hasi den bat ez dira oso diferenteak. Beraz, ezin da inolaz ere sekulako aldaketarik egon HH5etik LH1era espazioei, denborei, materialei... dagokienez, baina, batez ere, hezitzaileok haurrekiko dugun begiradari eta, beraz, gure esku-hartzeari dagokionez. Baina, aldi berean, LH1eko haur bat eta LH6ko gaztetxo bat ere ez dira oso berdinak, etapa zabala da. Hortaz, Lehen Hezkuntzaren baitan ere garrantzitsua da trantsizio lasai eta koherente bat eraikitzea. Trantsizioarena da, beraz, aipatuko nukeen lehen gako.

Bigarrenik, esango nuke, irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako bitarteko diren espazioak, denborak eta materialak eraldatzen hastea baino askoz ere garrantzitsuagoa dela, lehenik eta behin, hezitzaileok, taldean (klastro, etapa eta ziklo mailan), ikasleen irteera profilaz,

“Asko dira Haur Hezkuntzan paradigma aldaketa egin duten ikastetxeak. Eraldaketa horren testuinguruan hazi eta hezi diren haurrak Lehen Hezkuntzara iritsi ahala, hasi da LHn ere mugimendua, baina, iruditzen zait, hausnarketa sakon baten premia dugula”

“Irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako bitarteko diren espazioak, denborak eta materialak eraldatzen hastea baino askoz ere garrantzitsuagoa da, lehenik eta behin, hezitzaileok, taldean, ikasleen irteera profilaz, oinarritzko kompetentzietan, lortu nahi ditugun helburuez... hausnartzea”

“Ikaskuntzan jarri behar dugu arreta eta ez irakaskuntzan”

oinarrizko kompetentziaz, lortu nahi ditugun helburuez... hausnartzea. Eta, ondoren, beharra sentituz gero, espazioak, denborak, materialak... eraldatzea. Inolaz ere ahaztu behar ez genukeen kontu bat da espazioak, denborak eta materialak ez direla helburu, baizik eta baliabide edota, nahi bada, hezitzaileok ditugun helburuetarako baliatu beharreko bitartekoak. Finean, esan genezake, uneoro, gure esku-hartzeaz gogoeta egiteko ohitura hartu behar genukeela. Gure esku-hartzetik, zer mantenduko dugu? Zer aldatu? Nora joko dugu aldaketa horretan laguntzeko?...

Beste adibide bat ere badator kit burura. Ikastetxe askotan obrak egin dituzte (hainbat pareta bota, espazio berriak sortu...), baina pentsatu al dute obra hori zertarako nahi duten? Espazio aldaketa horrekin zer nahi duten? Nola lan egingo duten?

Hezitzaileak prest al daude gelak desagertu eta paretarik-eta gabeko espazioetan lan egiteko? Ongi pentsatu beharreko kontuak dira.

Haurrekiko dugun begirada partekatzea eta adostea ere funtsezko kontua da; izan ere, haurrekiko dugun begiradak zeharkatuko du gure esku-hartze guztia.

**Lehen haurtzaroaren (0-6) garrantzia asko nabarmendu da azken urteetan, eta haurraren sentiberatasuna, jakin-mina, erritmoak eta premiak aintzat hartzeak hezkuntza-prozesuetan duen garrantziaz jabetu gara. 6-12ko haurraren zer-nolako irudikapena izango duzue buruan Lehen Hezkuntzako formazio honetan?**

Aipatu dituzun horiek guztiak ezinbestekoak dira Lehen Hezkuntzan ere, noski. Hori bai, asko kezkatzen gaituen kontu bat ere ekarri nahi nuke lerrootara. "Haurra erdigunean jarri behar da"; "haurrak bere ikas-prozesuaren subjektu aktiboa izan behar du"; "haurraren interesetik abiatu behar da"; "haurraren erritmoak errespetatu behar dira"... Hezitzaileon diskurtso pedagogikoan asko entzuten dira gisa horretako baieztapenak. Ados egon ninteke baieztapen horiekin, baina



ezin zehaztapen txiki bat egin gabe lasai geratu: pentsatzen dut, asko eta sakon hitz egin behar genukeela baieztapen horien gainean gutako bakoitzak ulertzen duenari buruz. Adibidez, zer da haurra bere ikas-prozesuaren subjektu aktibo izatea? Hezitzaileon inolako esku-hartzerik gabe ikasiko duela? Hezitzaileokiko eta bere ikaskideekiko elkarrekin-tzaren eraginez, norberak eraikiko duela bere ezagutza?... Finean, esan liteke, beste hainbat alderditan bezala, honetan ere, funtsezkoa dela hezitzaileon artean adostasunak bilatzea, diskurtso partekatua erakitzea zein haurrekin esku-hartzeko moduak bateratzea.

**Zein da hezitzailearen rola haur horren hezkuntza-prozesuan?**

Hezitzailearen rolaz baino gehiago, hezitzailearen profilaz hitz egin nahi genuke. Zer ezaugarri izan behar ditu Lehen Hezkuntzako hezitzaileak?

6-12 urte arteko haur eta gazte-txoen garapen afektibo, kognitibo, sozial eta motorren ezagutza sakona izan behar du, bai ala bai, haur eta gaztetxo horien ezaugarrietara dohitu beharko baitu bere esku-hartzea, eta jarraipena egin ere bai.

Pertsonekin ari garen unetik,

Lehen Hezkuntzako hezitzaileak ere sentsibilitate eta empatia handia izan behar ditu.

Horrez gain, entzuteko eta behatzeko gaitasuna izan behar ditu, baina, horretarako, aurrez, norbere burua entzun eta behatzeko gaitasuna izatea ezinbesteko baldintza da. Horixe jarriko zaio arreta, hain zuzen ere, formazio pertsonalean.

Bestalde, ongi ulertu behar du nola gertatzen den haur eta gaztetxoaren ikaste-prozesua. Nola ikasten dute? Ikaskuntzan jarri behar dugu arreta eta ez irakaskuntzan. Irakaskuntza ikaskuntzaren zerbitzura dago. Berez, irakastea bera ez da helburu bat, baliabide bat baizik.

Kompetentzien inguruko diskurtsoa ere barneratuta izan behar du. Kompetentzien garapena bultzatu behar du hezitzaileak, hor jarri behar du fokua, baina, ahaztu gabe, kompetentziak garatzeko ezagutzak ere ezinbesteko direla. Hori bai, erabaki beharko du zein diren oinarri-oinarrizko ezagutzak (kompetentzien garapenerako ezinbestekoak direnak) eta zein alde batera utz litezkeenak.

Diskurtsoa barneratuta izatea, baina, ez da aski; estrategia metodologikoetan, planifikazioan eta ebaluazioan ere jantzia izan behar du. Nola antolatuko dut eguna edo

astea? Zeren baitan? Zer estrategia metodologiko baliatuko ditut egunean zehar? Uneoro berdinak? Nola planifikatu eta ebaluatuko dut? Nola planifikatu eta ebaluatuko dut nire esku-hartzea?

Lankidetzan jakitea ere funtsezko ezaugarria da. Hezitzaile gogoeta-tsuak behar ditugu, norbere esku-hartzearen gaineko gogoeta sistematikoa egingo duena eta gogoeta hori lankideekin batera egiteko gai izango dena.

Horiek dira, gure ustez, Lehen Hezkuntzako hezitzaile batek izan beharko lituzkeen ezaugarrietako batzuk. Formazioan zehar asko hitz egingo dugu irakasle on profilaz, uneoro presente izango dugun alderdietako bat izango da.

### **Zein izango da formazioaren egitura?**

Bi urteko formazioa da eta hiru zutabe nagusi izango ditu: formazio teorikoa, formazio praktikoa eta formazio pertsonala. Formazio teoriakoari dagokionez, lehen ikasturtean alderdi orokorrekin erpreparatuko zaie, hala hona: kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren testuinguratzea; 6-12 urte arteko haur eta gaztetxoaren ezaugarriak; zaintzaren pedagogia; ebaluazio hezigarria; ikaste-prozesuaren gaineko hainbat ikuspegiren gaineko elkarrizketa (ikuspegi sozio-erakitzatzailea, psikologia kognitiboa eta neurozientziak)... Bigarren ikasturtean, berriz, kompetentzien gaineko lanketan ardatzuko da, nagusiki, formazioaren alde teorikoa. Gure asmoa da kompetentzien araberako esku-hartzerako estrategia metodologikoak (arterako kompetentzia, zientzia eta teknologiarako kompetentzia, kompetentzia digitala, komunikaziorako kompetentzia, matematikako kompetentzia...) eta horien jarraipenerako pistak eskaintzea.

Formazio pertsonalari dagokionez, gradu ostekoan zehar, formazio pertsonaleko saioak izango dira. Hanka sartzeko batera beldurrik gabe esan genezake, hau dela formazioaren alderdirik indartsuenetakoa bat; izan ere, ez da oso ohikoa formazio akademikoetan formazio pertsonalari arreta eskaintzea. Psikomotrizitate arloko formazioetatik ekarritako

eredua da hau. Irakasle ikasketetan, esaterako, ez zaio gure ustez behar lukeen garrantzirik ematen. Hain zuzen ere, horrexegatik txertatu genuen formazio pertsonala Haur Hezkuntzako gradu ostekoan, eta han izan zuen harrera ona ikusita, ez dugu zalantzarik izan Lehen Hezkuntzakoan ere txertatzeko.

Bukatzeko, alderdi praktikoaz hitz egitea falta zaigu. Esan behar da, bai formazio teorikoa bai pertsonala, formazio praktikoaren zerbitzura daudela, alegia, gelan zein gelatik kanpo haur eta gaztetxoekin egunerokoan egiten dugun jarduna hobetzen laguntzeko daudela. Formazio praktikoa bi alderdi nagusi izango ditu: batetik, eskoletara egingo ditugun bisita pedagogikoak eta, bestetik, nork bere praktikaren inguruan idatziko duen egunerokoa. Sare eta lurralde desberdinetako ikastetxeetara egingo ditugu bisitak, **Hik Hasiko** kide den Arantxa Urbek esaten duen bezala, “sare bakoitzetik onena hartuz”. Bertatik bertara ezagutuko ditugu euren eraldaketa-prozesuak.

### **Nori zuzendua dago formazioa zehazki?**

Lehen Hezkuntzako tutore zein espezialistek; eraldaketa-prozesuan hasita edo hasteko gogoz dauden hezitzaile edo hezitzaile-taldek; beste ikastetxe batzuetako profesionalen ideiak, ametsak... partekatu nahi dituztenei; hezkuntza sareez gauden zubiak eraiki nahi dituztenei... Askotariko profila izan dezakete formazio honen hartzaileak. Aholkulari, zuzendari, ikasketaburu edota arduradun pedagogikoentzako ere formazio oso intesgarria izan daitekeela iruditzen zaigu, edozein eraldaketa-prozesutan ezinbestekoa baita ikastetxeko zuzendaritza-taldeak gidaritza hartzea eta prozesu horretan guztian hezitzaile-taldea zaintzea eta babestea. Zorionez, tutore batek berak bakarrik ere hausnartu dezake bere praktikaz edo jardunaz, baina ikastetxe mailako eraldaketa bat nahi bada, zuzendaritza-taldearen lidergo ezinbestekoa da. Beraz, profil hori duten profesionalak ere badute lekua formazio honetan.

“Kompetentzien inguruko diskurtsoa barneratuta izan behar du [LHko irakasleak]. Baina estrategia metodologikoetan, planifikazioan eta ebaluazioan ere jantzia izan behar du. Nola antolatuko dit eguna edo astea? Zeren baitan? Zer estrategia metodologiko baliatuko ditut?”

“Formazio teorikoa eta pertsonala gelan zein gelatik kanpo haur eta gaztetxoekin egunerokoan egiten dugun jarduna hobetzen laguntzeko daude”

“LHko tutore zein espezialistek; eraldaketan hasita edo hasteko gogoz daudenek; aholkulari, zuzendari edo ikasketaburuei; askotariko profila izan dezakete hartzaileek”

# ESPERIENTZIAK

HEZKIDETZA

## Guztiok izan beharko genuke feminista

Halaxe diosku Chimamanda Ngozi Adichi idazle nigeriarrak Hik Hasik euskarara ekarri zuen liburuxkan: mutil zein neska, emakume zein gizon, guztiok izan behar dugula feminista mundu hau hobetzeko. Euskal Herriko ikastetxe askotara heldu da liburuxka, irakasle zein ikasleengana, eta tresna egokia dela aitortu dute modu xume eta goxoan genero berdintasuna eta hezkidetza lantzeko.

Suedian 2005eko abenduan 16 urteko ikasle guztiei liburu honen ale bana ematea erabaki zuen hezkuntza agintaritzak. **Hik Hasik** 2017an argitaratu zuen euskaraz, eta gerotik hainbat ikastetxetan erabili dute liburuxka hezkidetzaren eta generoaren gaia lantzeko. Idazleak bere bizitzako pasarteak kontatzen ditu modu xume eta lasaian, baina

agerian utziz eguneroko bizipen horiei darien jarrera matxista. Ia oharkabean pasatzen diren ohiturak, erabakiak eta jarrerak argitara ateratzen ditu, eta horien aurrean jarrera feminista izateko deia egiten du, jakitun izanik ez dela erraza eta denon beharra dagoela. Lupa lana egiten du liburuxkak, eta zirimiria bezala ideia feministekin bustitzen du irakurlea.

Durangoko Kurutzia ikastolan **Hik Hasik** liburuxka argitaratu eta berehala eskatu zituzten ale batzuk. Idoia Marin irakasleak dio urte hartan sortu zela DBHko ikasleen artean talde feminista eta bertako kideei oparitu zizkietela. "Taldea sortu berria zen eta ikasleek konzientzia handia zuten. Inplikazio handiz abiatu ziren eta ikasteko gogotsu zeuden. Liburuxka euren



Iurretako Juan Orogioitia institutuko ikasleak "Hamabost minutu leitzen" txokoan puntu moreduen liburuak irakurtzen.

formakuntzarako ekarpen gisa ikusi genuen eta jakin-min handiz hartu zuten”. Aurten gauza bera egiteko asmoz eskatu dituzte liburuxkak, eta irakurri ondoren taldean bildu eta tertuliak egiteko asmoa dute. “Interesgarria deritzogu irakurri ondoren elkarrekin hitz egitea eta ekarpenak partekatzea”.

Gainera, hezkidetza da ikastolaren ardatzetako bat eta urte osoan zehar egiten dituzte jarduerak. “Beldur barik lehiaketan ‘*Handitan bide eginez*’ lanbideei buruzko lanarekin saria irabazi zuten”, dio Marinek.

Irungo Vicente de Paul ikastetxean ere Hezkidetza plana badute, berrikusten ari dira uneotan eta Berdintasan plana ere berritua dute. “Horrez gain, ikas-komunitatea sortu dugu gure ikastetxean eta horren barruan ikasleekin tertuliak martxan jartzeko asmotan gara”, kontatzen du Jorge Legüina zuzendariak. “Hori guztia lantzeko egokia izan daiteke liburuxka. Erreferentzia onak nituen eta eskaera egin dugu”. DBHko geletan eta liburutegian jarriko dituzte eskuragarri.

### Lanketa aukera anitzak

Bilboko San Adrian institutuan irakurketa-gelako proiektua ireki berri dutela dio Ander Lantaron idazkariak. “Bertan hainbat liburu jarriko ditugu ikasleen eskura eta tartean Chimamandarena, egokia ikusi dugulako eta Hezkidetza batzordea egiten ari den lanaren osagarri delako”. Irakurketa-gelan liburuak izango dituzte ikasleek eta irakurtzera soilik joan ahal izango dira, ezingo dute mugikorrekin edo ordenagailu eramangarriekin sartu.

Iurretako Juan Orogigoitia institutuan ere antzeko proiektu bat dute esku artean, “Hamabost minutu leitzen” izenekoa. DBHko geletan irakurtzeko txokoak antolatuta dituzte eta ikasleen eskura jarritako liburuen artean batzuk puntu moredunak dira. Hezkidetza batzordeko Ventura Kortazar, Unai Zuazua eta Maribi Perez arduratu dira puntu moredun liburuak jartzeaz, eta horien artean *Guztiok izan beharko genuke feminista* jarri dute. “Hasieran irakurgai modura jarri dugu eta



Irungo Vicente de Paul ikastetxeko ikasleak Chimamandaren liburua komentatzen.

ondoren, ikasturteak aurrera egin ahala, lanketa bat egiteko asmoa dugu”.

Gasteizko Mendebaldea BHI martxoaren 8an gela guztietan banatu zituzten liburuxkak, “nerabeei gaia gerturatzeko oso modu egokia delako liburu honen irakurketa”, Elena Garmendia Hezkidetza Batzordeko arduradunaren ustez. Ikasgai bakoitzaren denboraren lehen hamar minutuak irakurtzera bideratu zituzten, “eta horrela, ikasleak ez ezik, irakasle guztiak inplikatu ziren”.

Donostiako Zurriola ikastolan DBH3-ko ikasleek 3. hiruhilekoan Chimamandaren liburuxka izango dute langai Etika ikasgaietan. Amaia Dones DBHko koordinatzaileak azaltzen du modu horretara ebaluatu egingo den gaia izango dela, “eta horrek gaia sakonago lantzeko aukera emango digu”. Gelan irakurri eta elkarrekin komentatuko dute, eta Etikako irakasleak gaira hurbiltzen, idazlearen lekuan kokatzen eta enpatizatzen lagunduko die ikasleei. “Agian ez zaie erraza egingo irakurtzea, baina motza eta arina da, testigantza errealak dituen eta teoria ere baduena”.

Sestaoko La Salle Nuestra Señora de Begoña ikastetxean liburuxkak interesa piztu du. “Baina ikasleekin lantzen hasi aurretik, koordinatzaileek eta irakasleek irakurtzeko eskatu dugu”, dio Rober Ciudad zuzendariak. “Lehendabizi guk

geuk egin nahi dugu lanketa eta aurrera begira, gustatzen bazaigu, ikasleekin lantzeko gehiago eskatuko ditugu”.

Gauza bera egin dute Uharte-Ara-kilgo San Miguel HH eta LHko ikastetxean. Amaia Mendizabal irakasle eta zuzendariak dioenez, “nik neuk argitaratu zenean irakurri nuen eta oso interesgarria iruditzen zait. Halere, zalantzak genituen LH6-ko ikasleek irakurtzeko egokia izango ote zen, normalean DBH-koei ematen zaielako. Orduan, klaustrokide guztiontzat eskatu ditugu eta geuk irakurriko dugu. Ondoren, liburuxkari buruzko tertulia egingo dugu”. Esperientzia balaratu ostean erabakiko dute aurrera begira zer lanketa egin dezaketen. Skolae proiektua ere lantzen ari dira eta gustura daude egiten ari diren lanketarekin.

Ikastetxe hauetan denetan hainbat ekintza egiten dituzte martxoaren 8an, barrura zein herrira begira. Baina lanketa horretaz haratago joan nahi dute *Guztiok izan beharko genuke feminista* liburuxkarekin.

**Generoaren eta hezkidetzaren gaia lantzeko aukera asko ematen ditu Chimamandaren liburuxkak.**

# EKARPENAK

NAFARROAKO 0-3 PLATAFORMA

## Nafarroako haur eskolak borrokan, ratioak jaitsi eta lan baldintzak duintzeko

Nafarroako haur eskoletako hezitzaileek protesta eta mobilizazioetara jo dute Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamenduak haur eskoletako baldintzak duindu ditzan. Bi aldarrikapen nagusi dituzte: ratioak jaitea eta hezitzaileen lan baldintzak duintzea. Protestei kasurik egin ezean, Nafarroako Haur Eskolen 0-3 Plataformak ez du bazter-tzen maiatzean greba mugagabe bati hasiera ematea.

**N**afarroako Hezkuntza Departamenduak Haur Hezkuntzako 0 eta 6 urte bitarteko zikloaren irakaskuntzetarako foru dekretua osatu duen une bere-tan, protestan ari dira 0-3 etapan. Alde batetik, plataformak ontzat ematen du Gobernuaren adierazpe-na, “ez direlako inoiz arautu etapa osoaren edukiak, helburuak, xedeak eta printzipio orokor eta pedagogi-koak”. Hala ere, Haur Hezkuntzako lehen etapako benetako beharrei ez diela erantzuten uste du Nafarroako 0-3 Plataformak.

*Haur eskolak SOS* deialdia egin dute Nafarroako haur eskoletako hezitzaileek, “ezin dugu gehiago” adierazi dute. 0-3, Haur Hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza-kalitatea bermatu nahi dute, baina une honetan, alde batetik zentroetan dituzten ratioak aintzat hartuta, eta, bestetik, heziketa guneetako hezitzaileen lan baldintzak kontuan izanda, egoera “arras txarra” dela nabarmendu du Plataformak: “Beti-danik Nafarroan 0-3 zikloko egoera arras txarra izan da, alde batetik



izugarritzko ratioak ditugulakotz, hau da, haur kopurua hezitzaile bakoitzarendako Europako bikoitzak baitira (sei ditiko haur ditugu Nafarroan hezitzaile batendako, hamabi haur ertain (1-2 urtekoak) hezitzaile batendako eta hamasei haur nagusi (2-3 urtekoak) bidelagun batendako). Haur kopuru horiekin ezin da benetako kalitatezko zainketarik eta hezkuntza proiekturik bermatu — adierazi diote plataformako hezitzaileek **Hik Hasiri**—; bertzetik,

gure lan baldintzak ez dira batere duinak, egoera arras kaxkarrean eta arriskutsuan gaude eta ezin dugu gehiago”.

Dagoeneko bide administratiboa akiturik ikusten dute hezitzaileek, “urteak eta urteak borrokan ibili ondoren, baztertuta sentitzen gara”, adierazi dute, eta, une honetan, mobilizazio eta protestei ekin diete euren aldarrikapenak burura eraman eta kalitatezko zainketa eta heziketa eskaintzeko bitartekoak exijitzeko.

Ostegunak erreibindikazio egun bilakatu dira dagoeneko Nafarroako haur eskola asko eta askotan, eta horrez gain, elkarretaratzeak egiten dituzte, “haur eskolen duintasunaren alde” lelopean. Lelo hori bera daramaten elastiko eta zapi horiak ere esanguratsu bilakatu dira protestetan. *Haur eskolak SOS*, edota *0-3 duina eta zatitu gabearen* aldeko pankartak ere ikus daitezke haur eskola atarietan. Azken lelo horrek, hain zuzen ere, Nafarroako Hezkuntza kontseilariaren azken proposamenari egiten dio erreferentzia. 0-3 zikloa bitan zatitzeak hezitzaileen haserrea areagotu baitu: “Gaizki gaude baina, [Carlos] Gimeno jaunaren azken proposamenak puskatu egin gaitu mila zatitan. Bere ideia 0-3 zikloa zatitzea da, hau da, 2 urtekoendako eskola publikoetan 2 urteko gelak sortzea, Europatik ailegatu behar den dirutzarekin. Hautu hori benetan eraso bat iruditzen zaigu, zikloa ez delakoz zatitu behar. Bertze eskolak ez daude haur tikiak hezteko prest, hasteko, langileak ez direlako 0-3 ziklokoak eta espazioak ere ez daudelako egokituak adin horretarako”.

### Hiru eskari zehatz, Nafarroako Hezkuntza Departamenduari

Hiru dira Nafarroako 0-3 Plataforma lurraldeko Gobernuari eta honen Hezkuntza Departamenduari egiten dizkion eskari zehatzak:

- Haur eskoletako langileak bikoiztea eskatzen dute, ratioak jaisteko aukera gisa, plazen eskaintzari eutsiz, “horrela Europako Batzordearen Haurren Arretako Sareak gomendatutako ratioetara hurbilduko litzateke Nafarroako egoera”.
- Hezkuntza Departamentuak ezartzen dituen finantzaketa-moduluen igoera (langileen aintzinasuna, ordezkapenak, KPIaren igoerak eta udalen gastu erreala kontuan hartzea).
- 2 urteko gelak ezartzeko proposamena bertan behera uztea, “neurri antipedagogikoa eta antinaturala delako” hezitzaileen aburuz, “zikloa zatitzen duena eta adin horretako



**“Betidanik Nafarroan 0-3 zikloko egoera arras txarra izan da, alde batetik izugarriko ratioak ditugulakotz, hau da, haur kopurua hezitzaile bakoitzarendako Europako bikoitzak baitira”**

Nafarroako 0-3 Plataforma

haurren beharretara egokitzen ez delako”.

Urtebete daramate kexa plazaratzen. Lehenik familiekin partekatuta dute egoeraren berri eta, ondoren, kaleetan. Dagoeneko otsailaren 12an elkarretaratze zabala egin zuten Iruñean eta otsailaren 26an auto karabana egin zuten hiriburuan. Martxoaren 12 eta 13an itxialdiak egingo dituzte eskoletan eta martxoaren 26rako beste elkarretaratze bat dute deitua Iruñean. Plataforma-aren helburua mahai negoziatzaile bat sortzea da, baina Hezkuntza Departamenduak eta Nafarroako Gobernuak urratsik aurrera egin ezean, plataformak grebara deituko du, “azken baliabide gisa”. Apirilaren 7an erabakiko dute hezigune bakoitzean grebara joan ala ez, eta baiezkoa erabakiz gero, maiatzaren 2tik aitzin hasiko lukete geldialdia. “Aste bat? Mugagabea?” oraindik ez dute erabaki.

# EKARPENAK

HEZIKETA FISIKOA

## Heziketa Fisikoaren alde

Astean, gutxienez, Heziketa Fisikoko 3 eskola-ordu izatea eskatzen du SOHAT Heziketa Fisikoaren Aldeko Taldeak artikulua honetan. Heziketa Fisikoak ikasle guztien arrakasta eta bizipen positiboak bultzatzen dituela diote eta motrizitateak pertsonaren osotasunean eragiten duela. Hezkuntza Heziketa Fisikoa baino gehiago dela diote, baina hura gabe askoz gutxiago dela azpimarratu dute.

OMLOE legea dela eta, beste curriculum-aldaketa bat biziko dugu hezkuntzan. Aukera hau baliatu nahi genuke, hainbat hausnarketa egiteko eta, bide batez, Heziketa Fisikoko (HF) eskola-ordu gehiago eskatzeko; zehazki, astean 3 eskola-ordu gutxienez, hezkuntza-etapa guztietan.

Unescoren (2013) Berlingo Adierazpenaren arabera, “Heziketa Fisikoa, eskolan eta gainerako hezkuntza-erakundeetan, bitarteko eraginkorra da haur eta gazteek gizartean parte hartzeko behar dituzten konpetentziak, gaitasunak, jarrerak, balioak eta ezagutzak garatu ditzaten”. Europako herrialdeen artean, Espainia da HFko eskola-ordu gutxien eskaintzen dituen herrialdeetako bat. Lehen Hezkuntzan, eskola-ordu guztien % 6, eta % 3 Bigarren Hezkuntzan. Aldiz, Frantzia, % 10 eta % 14 dira, hurrenez hurren; Alemanian, % 14 eta % 9, eta Norvegian, % 9, bi etapetan (Eurydice, 2014).

Ezer baino lehen, HFa Oinarrizko Hezkuntzako arlo bat dela azpimarratu behar dugu; horren ondorioz, Oinarrizko Hezkuntzaren xede hezigarri jarraitzen die. HFa ez dago gizartean etengabe aldatzen diren moden baitan, ez dago kirol-klubek

eta olinpiadek duten errendimendu-ikuspuntura begira, eta ez da, inolaz ere, eskolaz kanpoko jarduera bat, Eskola Kirola bezala (hautazkoa, ordainpekoa eta kirol-kultura hegemonikoan zentratzen dena).

**HFak ikasle guztien arrakasta eta bizipen positiboak bultzatzen ditu.** Gainera, **ikasle guztiak osotasunean hezte du eginbide nagusi,** jokabide motorretan hezte, hain zuzen, bai eta pertsona jokabide motorretatik hezte ere (Larraz, 2008).

Urte askoan, motrizitatea fenomeno biologiko-mekaniko soiletara mugatu izan da. Nostalgiko askok darabilte oraindik *Mens sana in corpore sano* formula, aspaldi gaudituz zen pertsonaren ikusmolde dualistari erreferentzia eginez, duela hogeimende bezala. Ariketa fisikoak organismoan dituen eraginak eta onurak izugarriak dira, baina motrizitatea ezin da makina baten azalpenera mugatu: ikaslea ez da mugitu, zaindu eta osasuntsu mantendu behar den makina bat, pertsona bat baizik, eta motrizitateak, dimentsio fisikoak harago, pertsonaren osotasunean eragiten du, ekarpen onuragarriak sustatuz ikasleen dimentsio guztietan (Parlebas, 2016, 2017).

*Dimentsio biologikoan,* gizartean gehien argudiatu den bezala, oso

modu positiboan eragiten die arnas-keta-aparatuari, zirkulazio-aparatuari, hezurren garapenari, giharren garapenari... Horrez gain, lo hobeto egiten eta gorputz orekatua lortzen laguntzen du, eta gaixotasunak prebenitzen ditu.

*Dimentsio kognitiboan,* ezaguna da haurren nortasuna motrizitatearen bidez eraikitzen dela. Haurren jarduera fisikoek ibilbideak eta joan-etorriak ebaluatzeko, abiadurak kalkulatzeko eta erritmoak balioesteko aukera ematen dute, besteak beste. Horri esker, adimen psikomotorra garatzen du ikasleak, eta helduen adimen formalaren oinarria da hori.

*Harreman-dimentsioan,* egoera motorrek benetako adimen soziomotorra garatzea ahalbidetzen dute. Taldeko jardueretan, parte-hartzaileek kide gisa esku hartzen dute (itun, laguntza eta elkarlaneko harremanekin), bai eta arerio gisa ere (aurkaritzako harremanekin), eta kontrako bizipenak agertzen dira: frustrazioa eta oldarkortasuna, alde batetik, eta tolerantzia, norberaren ahalduntzea, enpatia eta komunikazioa, bestetik.

*Afektibitatean* jarduera fisikoan eragin handia duen *dimentsioa* da, nortasun osoa adierazten baita hori. Faktore emozionalek eragin sakona dute teknika motorretan eta ikaskun-

tza-prozesuan. Horregatik, garrantzia hartzen dute hezkuntza-erabileran.

*Adierazpen-dimentsioa eta dimentsio estetiko*a ere garatzen dira. Motrizitatea hizkuntza bihurtzen da, eta irudimena eta mugimendu-sorkuntza bizkortzen dira.

*Erabakien dimentsioa* ere modu positiboan lantzen da. Egoera motorretan, ikasleek erabakiak beren kabuz hartzea lortu nahi da, eta arrakasta-aukerak ebaluatzea. Ikasleak, egoera errealetan, etengabeko doikuntzetan murgiltzen dira, behin eta berriz mikroerabakiak hartuz eta bizitzarako ikaskuntzan aurrerapau-soak emanaz.

Beraz, HFak Oinarrizko Hezkuntzan duen garrantzia argudiatzeko, ez gara osasunaren dimentsio biologikoan soilik oinarritzen. Jorratzen da osasuna HF saioretan, noski; baina, zeharka, beste ikasgai guztietan landu beharko litzatekeen bezala, hezkidetzeta, inklusio, higie, elikadura edo lehen sorospenekin batera. HFaren benetako indarra ikaslea bere osotasunean heztean dago, haren espezifikotasunetik abiatuta, betiere: jokabide motorren hezkuntzatik. Hor dago benetako eta pisuzko argudioa HFaren presentzia justifikatzeko.

HFko irakasleok ikasleen jokabide motorrak heztea dugu helburu, baina ez kirolari profesional bihurtzeko, baizik eta haien garapen integralaren prozesuan laguntzeko. Ikasleek ez dituzte hizkuntzak ikasten gero filologoak izateko, matematika ikasten ez duten bezala matematikoak izateko, edo musika musikari profesionalak izateko. Oinarrizko Hezkuntzan, ikasleek konpetentzia motorra garatuko dute, beste oinarrizko konpetentziekin batera. Horri esker, gai izango dira esparru motorreko arazo-egoera guztiei eraginkortasunez aurre egiteko.

Hala ere, HFaren ekarpen hezigarriak aprobetxatzeko, ikasleek gutxieneko maiztasun batez bizi behar dituzte ekarpen horiek ahalbidetzen dituzten egoera motorrak. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan ditugun HF orduekin (astean 1,5 edo 2 ordu, saio bakarrean elkartuta



askotan), ezinezkoa da maiztasun hori bermatzea. Are gutxiago, HF baldintza egokietan egin ahal izateko, gure ikastorduetako konpromiso motorraren denbora erabili behar izaten dugunean, besteak beste, kirol-instalazioetara joateko, arropa aldatzeko eta dutxatzeko. Entrenamendu-printzipioetan bezala, HFn ere estimuluak (egoera motorrak) jarraitutasunez errepikatu behar dira, egokitzapenak (ekarpenak) eragiteko.

Horren ondorioz, azpimarratu nahi dugu HFa ez dela erremedio mediko bat, ez da denbora-pasa bat, eta ez da esfortzu intelektuala konpentsatzeko praktika bat. HFa jokabide motorren hezkuntza da, eta haren zentzua hezkuntza-proiektu globalean zentratzen da, ikasleen hezkuntza-prozesu globalean. Beraz, ez gaitzen HFaz oroitu gizartean eta komunikabideetan obesitate-arazoak eta antsietate-arazoak daudenean soilik. HF hori baino askoz gehiago da; horregatik, benetan eraginkorrak izateko, eskatzen dugu astean gutxienez 3 eskola-ordu HF ezartzea, hezkuntza-etapa guztietan. Hezkuntza HF baino gehiago da, baina askoz gutxiago da hura gabe; izan ere, hezkuntzan profesionalak izanik, segurtasun osoz sinesten dugu konpetentzia motorraren garapenik gabe ikaslearen garapen globala nabarmen murrizten dela. Ez dezagun beste behin ere aukera galdu, azken 14 urteotan bezala.

#### **Idatziari atxikimendua ematen dioten Berritzeguneetako HF mintegiak:**

- Basauri-Galdakao B06 Berritzeguneko HF mintegia.
- Leioako B08 Berritzeguneko HF mintegia.
- Lasarte-Oriako G06 Berritzeguneko Lehen Hezkuntzako HF mintegia.
- Durangoko B09 Berritzeguneko HF mintegia.
- Lasarte-Oriako G06 Berritzeguneko Bigarren Hezkuntzako HF mintegia.
- EAEko 500 Gorputz Hezkuntzako irakasleren atxikimendua

#### **Erreferentzia bibliografikoak:**

- EURYDICE (2014). *Cifras clave de la educación y atención a la primera infancia en Europa*. Europako Batzordea: Eurydice-Eurostat.
- LARRAZ, A. (2008). "Valores y dominios de acción motriz en la programación de educación física para la educación primaria". Seminario Internacional de Praxiología Motriz. Lleida.
- PARLEBAS, P. (2016). *Heziketa fisiko moderno baterako ikuspuntuak*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- PARLEBAS, P. (2017). *La aventura praxiológica. Ciencia, acción y educación física*. Málaga: Andalucíaiko Junta.
- UNESCO (2013). Berlingo Adierazpena. UNESDOC. Liburutegi Digitala. <https://labur.eus/3c3SX>

# EKARPENAK

GIZARTE HEZKUNTZA

---

## Gizarte-hezitzailea eraikitzen: ahalduntze- eta emantzipazio-prozesu bat

Zer da gizarte-hezitzaile bat, eta zein da haren egitekoa gaur egungo jendartean? Gizartearen eraldaketarako bidean egin behar al du lan? Baiezko erantzuna ematen dio galdera horri Joseba Gabilondo gizarte-hezitzaileak artikulu honetan. Gizarte-hezitzailearen irudia eraikitzeko gakoak ematen ditu Gabilondok, baina harago doa: helburua, gizarte-hezitzailearen beraren irudia desagertzea izango litzateke, edo, behintzat, jendartean barreiatzea.

**G**izarte-hezitzailea eraldaketa sozialerako agente eta emantzipazio-prozesuen erraztaile gisa ulertuta, ezinbesteko jotzen da hezkuntza-prozesua ahalduntze- eta emantzipazio-prozesu gisa garatzea, teoria hutsean geratu ordez, praktikan ere aritzeko eta bizitzeko. Hezkuntza-prozesu bideratu eta bertikal bateko mendeko subjektua ikaslea dela ulertuta, ezinbestekoa da hezkuntzaren prozesu bertikala horizontal bihurtzea, mendekotasun horretatik askatzeko eta ahalduntzeko prozesu bat egin nahi bada. Horretarako, gertatzen diren botere-harremanen asimetriak esplizitu egin eta landu egin behar dira. Bestalde, garrantzitsua da, askapen- eta ahalduntze-prozesu hori kolektibotzat hartuta, norbana-koaren, taldearen eta proiektuaren (hezkuntza-prozesua) zaintzan eta elkarren zaintzan arreta jartzea ere. Hori gutzia aztertzeke, eta hezkun-



**JOSEBA GABILONDO MARQUES**  
Gizarte-hezitzailea eta Talde Prozesuen Erraztailea. Hiruki Larroxa elkarteko kidea

tza-prozesuak horizontal bihurtzeak eta ahalduntze- eta emantzipazio-prozesu gisa gauzatzeak duten garrantzia azpimarratzeko, bi ikaslek Euskal Herriko Unibertsitatean bizi-tako emantzipazio-prozesuak aztertu ziren.

Gizarte Hezkuntzako Gradu Amaierako Lan hau graduiko ikasketa-prozesuan hainbatetan egindako hausnarketa batetik sortu zen: zer da gizarte-hezitzaile bat, eta zer egiteko izan beharko luke gaur egungo jendartean? Gizarte-hezitzaile baten jarduna jendartearen erreprodukzioan datza, ala jendartearen eraldaketan? (García, 2018). Bada, lan honetan, gizarte-hezitzailea, argi eta garbi, jendartearen eraldaketarako agente moduan ikusten da, eta, hori horrela izanik, haren eraikitze-prozesuak berak ere (unibertsitateko ikasketak) ahalduntze- eta emantzipazio-prozesu eraldatzailea izan behar duela proposatzen da. Ahalduntze- eta



emantzipazio-prozesu horren hainbat gako ondorioztatzeko, EHUko Gizarte Hezkuntza eta Soziologia graduetak bi esperientzia aztertu ziren lanean, esperientzietan parte hartu zuten ikasleak zein irakasleak elkarrizketatuz. Gizarte Hezkuntzako gradukoa ikasleen ekimenez sortutako ikasle-asanblada izan zen, eta ikasketa-prozesuaren protagonismoa hartu, eta horizontal bihurtu nahi izan zuen (ni talde horren parte izan nintzen); Soziologiako gradukoa, berriz, irakasle baten ekimena izan zen, eta ikasleek nolabait ere ikasketa-prozesuaren *agintea* hartzeko baliabideak eskaini zituen.

### Gizarte-hezitzailea: askapen-prozesuen erraztailea<sup>1</sup>

Lehenik eta behin, gizarte-hezitzailearen izaera eraldatzailea definitzen da lanean, eta, horretarako, haren jarduna ulertzeko hainbat ikuspegi jartzen dira mahai gainean.

Arestian aipatu den moduan, bi ikuspegi orokor izan ditzakegu. Aldebatean, ikuspegi tradizionalagoa

izan daitekeen izaera asistentzialista dago (Vallés, 2009-2010). Beste aldean, aldiz, gizarte-hezitzailearen izaera eraldatzailea dago, nolabait, jendartearen eraldaketa bultzatzeko beste agente bat gehiago dela jotzen duen ikuspegia (Sanchez, 2011).

Azken ikuspegi horretatik abiatuta definitzen da gizarte-hezitzailearen ikuspegi propioa<sup>2</sup>, eraldaketa sozialerako aktibista izango balitz bezala. Hala, hezkuntza-erlaketarako oinarria izanda eta gaur egungo jendarte-ereduan sortzen diren botere-harremenen asimetriak (Foucault, 1978) eta gertatzen diren zapalkuntzak kontuan izanda, bazterketa- eta zapalkuntza-egoeran daudenen ahalduntzea bilatuko du. Eta horien askapen- eta ahalduntze-prozesua eraldaketarako adibidetzat harturik, edo, are gehiago, horiek ere jendartearen eraldaketarako subjektu politizatu aktibo bilakatuz, jendartearen eraldaketa bilatuko du (Adell, Lara & Mármol, 2014). Betiere, ahalduntze- eta emantzipazio-prozesu horren

izaera kolektiboa kontuan izanda (IIFAC-E, 2011 eta Mindell, 2004).

Hori horrela, paradoxikoa dirudien arren, gizarte-hezitzailearen jomuga gizarte-hezitzailearen beraren irudia desagertzea izango litzateke

**Hezkuntza-prozesu bideratu eta bertikal bateko mendeko subjektua ikaslea dela ulertuta, ezinbestekoa da hezkuntzaren prozesu bertikala horizontal bihurtzea, mendekotasun horretatik askatzeko eta ahalduntzeko.**

<sup>1</sup> Erraztailea: *bidelagun* ere erabil daiteke. Gaztelaniazko *facilitador de procesos grupales* kontzeptutik dator. (IIFAC-E, 2011)

<sup>2</sup> Universitat Autònoma de Barcelona-ko egonaldiko ikasgai baterako egindako bideoa: <https://labur.eus/GHbideoa>



(zapartistek munduari beren burua aurkeztu zioten moduan: “*Somos soldados para que deje de haber soldados*”). Edota, hain dramatikoa ez izatearren, irudi hori jendartean barreiatzea.

### **Herri-hezkuntza: pedagogia emantzipatzailea**

Gizarte-hezitzailearen hezkuntza-prozesuak askapen- eta ahalduntze-prozesua izan behar duela adierazita, askatzailea izan beharko du hezkuntza-prozesu hori hezurtzen duen pedagogiak berak ere.

Paulo Freireri eta haren ideiei jarraituz, praktika pedagogiko apropos bat dator, eta praktika horrek erdigunean jartzen ditu gaur egungo jendarte-ereduan gertatzen diren botere-harremanen asimetriak eta

mendekotasun-egoerak. Sistema zapaltzaile horretako subjektu zapalduen kontzientziakoa du helburu. Paulo Freireren *La pedagogía del oprimido* (Zapalduaren Pedagogia) lanean (Freire, 2005) du sorburua aztertu nahi den praktika pedagogikoak: herri-hezkuntza (edo Erdialdeko Amerikan eta Hego Amerikan neoliberalismotik eta kolonialismotik emantzipatzeko gogo eta praktikatik datorren *educación popular* delakoa).

Herri Hezkuntza indibidualismoaren ideia kapitalista eta neoliberaletik urruntzen da, prozesu pedagogiko kolektiboa eskaintzen baitu *indibidualizatu, alienatu eta zatitu* egiten gaituen sistemaren aurrean (Roco, 2015), prozesu kolektibo horretatik herri-jakintzak eraikiz (Jara, 2015). Jakina, prozesu kolektibo hori antolatu beharra dago nolabait, praktika emantzipatzailea izan nahi badu, eta hori da, hain zuzen ere, lan honetan esperientzien analititik ondorioztatu nahi izan dena.

Praktika pedagogiko emantzipatzaileaz ari garenean, gaur egungo jendarte-eredu hierarkikoa kodifikatzen duten botere-harremanez aritu behar dugu, ezinbestean. Horien asimetriei buruz eta horrek sortzen dituen zapalkuntzei buruz. Konplexutasun horren guztiaren kontzientzia hartzea beharrezkoa da, mendekotasun- eta desberdintasun-indarrak pertsona bakoitzaren bizitzan eta jendartean nola aritzen diren jakiteko eta, ondoren, injustiziei aurre egiteko, boterearen ikuspegi eta

estrategia alternatiboak ikusiz (Miller, Veneklasen, Reilly eta Clark, 2006). Askotariko zapalkuntza-sistemek (Davis, 2016) sortzen dituzten botere-harremanen arteko asimetrien konplexutasuna argitzeko, ezinbestekoa da begirada interseksionala (Crenshaw, 1995) izatea ere, talde barruan zein jendartean gertatzen diren zapalkuntza-egoerak ulertzeko.

Aurretik aipatu moduan, Herri Hezkuntza logika kapitalista eta neoliberaletik urruntzen den proposamen pedagogikoa denez, zaintza erdigunean jartzeko hautua dator. Nolabait ere, logika kapitalista-produktibistatik eta jakintzen kapitalizazioaren zentraltasunetik urrunduz eta zaintza erdigunean kokatuta (Zamora, 2017). Hemen koka daiteke *Zaintzaren etika* deritzoguna. Kontzeptuak berak adierazten duen moduan, *erabakiak hartzerakoan, lehenengo balio moral gisa zaintza izatea* (Aguado, 2018) litzateke Zaintzaren Etika.

### **Ondorioak**

Lan honetarako eraikitako marko teorikoa (aurreko lerroetan laburbildutakoa) kontuan izanda, arestian aipatutako esperientziak analizatzean ondorioztatutakoaz gain, hezkuntza-prozesuak horizontal bihurtu eta ahalduntze- eta emantzipazio-prozesu gisa eraikitzeke edo bizitzeko gakoak edo proposamenak ere ageri dira lanean.

### **Goitik behera ala behetik gora?**

Hezkuntza-prozesua horizontal bihurtzeko eta ahalduntze- eta emantzipazio-prozesu moduan bizitzeko, garrantzitsua da inizatiba nork hartzen duen edo proposamena nondik datorren begiratzea. Izan ere, ahalduntze- eta emantzipazio-izaera handiagoa eta kontzientzia sendoagoa egongo da behetik, hau da, ikasleengandik (mendeko subjektua), sortzen bada, goitik, hau da, irakasleengandik (autoritatea), sortzen bada baino. Garrantzitsua baino areago, gakoak da. Hori ondorioztatu da, behintzat, lan honetan aztertutako esperientzietan. Ikasleen inizatibaz sortutako esperientzian, ikaslearen inplikazioa, ilusioa eta

**Gizarte-hezitzailearen hezkuntza-prozesuak askapen- eta ahalduntze-prozesua izan behar duela adierazita, askatzailea izan beharko du hezkuntza-prozesu hori hezurtzen duen pedagogiak ere.**

teoriatik praktikara pasatu nahia ikusi dira. Eta hazkunde handia. Irakaslearen aldetik sortutako esperientzian, aldiz, inplikazioa eta ilusioa izan duen ikaslerik izan den arren, ikusi da oro har ikasleak inertzietan galtzen zirela. Eta horren ondorioz, bizipena nahiko azalekoa zela.

### Ikasleak

Ahalduntze- eta emantzipazio-prozesuko edota hezkuntza-prozesuko protagonista izatea bilatzen duen ikasleari dagokionez, txanpon beraren bi aldeak dituela identifikatu da: prozesuaren motorra da, eta, aldi berean, galga.

Ikaslearen profil hau ikusten da: hezkuntza-sistemaren aurkako hasierako kritikan posizio aktiboa duena, eta ondoren, ikasleak aktibatzeke, antolatzeke eta kritika horiek oinarri hartuta teoriatik praktikara pasatzeko alternatiba sortzen denean, alternatiba horren aurka egiten duena.

Eraldaketaerako aukeren aurrean, ikasleen jokabide bat ere identifikatu da: nolabait, egoera aldatzeko aukerak irekitzen direnean, eta aurretik nahi izan dutenean, atzera egitea eta, beste behin, zapalduaren egoera ikasira eta erosora bueltatzea. Askatasunarekiko beldur gisa izenda dezakegu prozesu hori. Hain zuzen ere, Erich Frommek “Askatasunetik iheska” liburuan kontzeptualizatu zuen moduan (Fromm, 1993).

### Adibidearen pedagogia

Esperientzietan, eta gehienbat ikasleen asanbladan, horren garrantzia berretsi dugu. Ikusi dugu hitzetatik ekintzetara pasatzen eta ekintza horien kontzientzia hartzen gauzaten dela bizipena. Gatazkak sortzen diren unean, garrantzitsua da eraldaketaerako aukera moduan ikustea eta modu kontsekuentean jokatzea.

Adibidearen pedagogiareneko ideia-irri jarraituz, interesgarria izango litzateke, ikasleen asanbladan egin zen moduan, jarraipen-batzordeak definitzea ikasgaiaren hainbat dimentsiotan (edukiak, ebaluazioa, metodologia eta talde-giroa), edota esperientzia guztia sistematizatzea. Horrela, praktikatik ikasteko. Freireren *praxis auténtica* kontzeptua

egikaritzuz: “...sólo es posible hacerlo a través de la praxis auténtica, que no es ni activismo ni verbalismo sino acción y reflexión.” (Freire, 2005:40)

### Botere-harremanak

Botere-harremanak esplizitu egiteak eta horien kontzientzia hartzeak ezinbestekoa izan behar du gizarte-hezitzailearen hezkuntza-prozesuan. Izan ere, gizarte-hezitzailearen helburua gaur egungo jendarte-ereduan gertatzen diren desberdintasunak eta zapalkuntzak desagerraraztea bada, zapalkuntza eta diskriminazio horien oinarri duden zapalkuntza-sistemak eta horrek sortzen dituen botere-harreman asimetrikoak eta horien konplexutasuna ulertu behar dira.

Dena dela, talde barruan izaten diren botere-harremanen asimetrietan ere atentzioa jarri behar dela ikusi da.

### Kolektibitatea


Kolektibitateak dituen potentzialtasunak identifikatu ahal izan dira lan hau egitean. Kolektiboko kideen ahalduntzea da horietako bat. Talde-indarra sortzen den unean, eta gauzak eraldatzeko indar kolektiboa dagoela ikustean, bertako kideen ahalduntze pertsonala gertatu dela

ikusi da. Baita ahalduntze kolektiboa ere. Ia-ia, kolektiboa indarraren sinonimo bihurtzeraino. Indar kolektibo horren atzean, kontzientzia kolektibo bat ere badagoela esan daiteke. Izan ere, boterearen aurrean posizio kolektiboa agertzen, partekatzen denaren kontzientzia baitago.

Dena den, kolektibitatea ez da modu espontaneoan sortzen. Nahiz eta taldeak sortu daitezkeen, berez. Kolektibitateak eta horien potentzialtasuna lortzeko, kontzienteki lan egin behar da. Horizontal bihurtzeko ekintzak eta zaintza-ekintzak kontzienteki burutuz.

Azkenik, hezkuntza-prozesuak horizontal bihurtzen edota pedagogia berritzaile parte-hartzaileez aritzean, esaten dena da, ikasleak protagonismo handiagoa hartzen duen moduan, konpromisoak ere hartzen dituela, eta hezkuntza-prozesua bideratuko duena taldea bera izango dela: ikasleak irakaslearekin batera. Jakina, ahaztu gabe, irakaslea dela aditua eta aritua, eta, hein batean, erreferentzia; baina ez egiaren jabea. Egiak modu kolektiboan eraikitzen baitira.

Gradu Amaierako lan hau osorik irakurtzeko eta bibliografia ikusteko: <https://labur.eus/GHeraikitzen>



# AHALDUNTZE ESKOLA

ARTE HEZKUNTZA

## Artea ez da museoetarako

Artea gizarteratzeko eta museoetatik ateratzeko apustua egin dute Uharte Arte Garaikideko Zentroan. Kanpoaldeko paretan Jorge Oteizak esandakoan oinarrituta losu Zapatak egindako horma irudia ikus daiteke eta horrek argi eta garbi dio: “Artea ez da museoetarako”. Arteak kalera atera behar du denon bizitzan baitu lekua, txikitatik. Ikasgeletan ere beharrezkoa da, eta hori dela eta, hezkuntza arlorako eskaintza zabala du zentroak. Orain, ‘Tresnaka’ izeneko baliabidea gehitu diote eskaintza horri. Artearen garrantziaz aritu gara Nerea de Diego eta Jyotima Barrenetxea Uharte Arte Garaikideko Zentroko kideekin.

**A**rteak garrantzi handia du haurren eta nerabeen garapenean. Baina zergatik? Arrazoi ugari daudela esan digute Nerea de Diegok eta Jyotima Barrenetxeak, Uharte Arte Garaikideko Zentroko kideek. “Artearen kontzeptua leku askotatik heldu daiteke: ingurua eta geure burua ulertzen laguntzen digu, pentsamendu kritikoa bultzatzen du, jarrerak eta balioak sustatzen ditu, geure nortasuna eta munduaren ikuskera eraikitzen laguntzen du, interpretazioa eta irudimena garatzen ditu...”, esan digu Barrenetxeak. “Pentsamendu dibergentea bultzatzen du, esperimentazioa, jolasa, ikerketa eta sormena garatzen laguntzen du. Egiten ikastea ahalbidetzen du”, gaineratu du de Diegok.

Ikaskuntza prozesuan ere, arteak fokua aldatzea eskatzen duela dio Barrenetxeak. Emaitzari, baina, batez ere, prozesuari arreta jartzea: “Gakoa da begirada emaitzetatik prozesura aldatzea. Arteak hezkuntzari egiten dion ekarpen handienetako bat giza esperientzia geureganatzeko gaitasuna da. Pertsonen

garapen prozesuak bultzatzeko gaitasuna. Eta horiek ez dira zertan artelanen kopiaketak izan behar, indargunea prozesuetan baitago. Ikertze, hausnartze, egite eta sortze horretan”.

Horrek guztiak inplikazioa eskatzen die ikasleei de Diegok esan digunez: “Zure ikerketa da, zure esperientzia... Aurkikuntzaren

bidezko ikasketa gertatzen da. Eta talde-lanean egiten denean, are esanguratsuagoa izaten da”.

### Errealitatea ulertzeko tresna

Errealitatea eta geure ingurua ulertzeko tresna ezin hobea da artea: “Arteak testuinguru soziopolitiko jakin batekin lotura estua du. Gure testuinguru zehatzetik, gure desio,



nahi eta kezketatik ulertu behar dugu artea”, dio Barrenetxeak. De Diegoren hitzetan, pertsona gisa gure testuinguruan kokatzen eta errealitatea ulertzen laguntzen digu arteak: “Sentimenduak, hausnarkeak, ametsak, beldurrak, fantasiak, ekintzak, sinesmenak edota sententzioak kokatzeko ahalmena dauka arteak”.

Arteak eragiteko duen boterea ez dugu ahaztu behar: norberarengan eta munduan eragiten du, eta zentzu horretan tresna gisa erabil daitekeela diote biek ala biek. de Diego harago doa: “Artea ez litzateke soilik plastikara, musikara edo gorputz heziketara mugatu behar. Izan ere, artearen bidez edozein gai landu daiteke. Eraldaketa sinbolikoak, estetikoak edota ideologikoak proposatzeko aukera paregabea da artea”.

Gainera, artearen bidez artea bera ezagutzen dugu eta ezagutza horrek arteaz gozatzeko gaitasuna bultzatzen du. Artearen esperientzia bizitzeak, artista baten prozesuetara eta artista horrek izan dituen kezketara hurbiltzen gaitu. Kezka horiek gure prozesuen parte izatea ahalbidetzen du”.

Helburua da, artea ikasleen eraldaketa pertsonalerako eragile izatea, bai irudien hartzaile gisa, eta baita sortzaile gisa ere. Baita gaur egun irudiak duen boteretik babesteko tresnak eskaintzea ere, Barrenetxeak esan digunez: “Etengabe ari gara irudi bidezko mezuak jasotzen eta aztertu gabe irensten ditugu. Horregatik da garrantzitsua irudia lantzeko tresnak eskaintzea, begirada propioa eta kritikoa erakitzeko tresnak eskaintzea”. Iritzi berekoa da de Diego: “Eguneroko irudi-jasaren aurrean babesik gabe gaude bai helduok eta baita haur eta nerabeak ere. Arte hezkuntzak lagundu dezake kultura bisuala interpretatzeko gaitasun propioa bultzatzen eta modu horretan geure buruak babesten. Izan ere, irudi bat egite hutsarekin ulertzen duzu irudi guztiak norbaitek sortuak direla, eraikitakoak direla, eta irudietan, iragarkietan agertzen dena ez dela egia objektiboa”.

Curriculumean arte hezkuntza-

## Tresnaka

Urte asko lanean pasa ondoren, 2020-21 ikasturtean baliabide berria estreinatu zuen Uharteko Arte Garaikideko Zentroak: *Tresnaka*. Hainbat baliabide eskaintzen dituen webgunea da eta helburu bikoitza du: alde batetik, prozesu artistikoak hezkuntzari eta hezitzaileei hurbiltzea eta, bestetik, publiko zabalari Uharteko Arte Garaikideko Zentroarekin lotura duten artistak eta euren lana ezagutaraztea.

Hezkuntza proposamenak ere aurki daitezke: batzuk hezitzaileek eta beste batzuk artistek beraiek ere proposatuak. Proposamen malguak dira baina eskema bat jarraitzen dute eta jarduera jakin bat egiteko baliabideak daitezke, edo ikasturte osoko prozesua martxan jartzeko. Arloka antolatutako gaikako bilatzailea du *Tresnakak* eta irakasle batek, adibidez, naturaren gaineko gairen bat landu nahi badu, bilaketa egin dezake gairekin lotutako proposamena eskuratzeko. Irakasleek beren kaxa landu dezakete materiala baina Uharteko Arte Garaikideko Zentroak irakasleentzako ikastaroak ere antolatzen ditu.

Gaur egun 30 artista inguru daude *Tresnakan*, eta material ugari, baina proiektua ez dago itxia eta etengabe elikatzen dute proposamen eta artista berriekin.



ri nahikoa garrantzia ematen ez zaionez eta irakasleen edo zuzendarien esku geratzen den gaia denez, eskolen arteko desoreka handiak izaten direla aipatu digu de Diegok: “Nik uste dut artea zeharkako ardatza izan daitekeela hezkuntza prozesu guztietan. Hezkuntzaren

helburu nagusia pertsona integralak, autonomoak, kritikokoak, sentikorak... eraikitzea baldin bada, artea bide horretan doa, helburu hori baitu. Adierazgarria da metodologia berritzaileak dituzten eskoletan arteak garrantzi handiagoa izan ohi duela”.

# GALDEIDAZU

## HAURRAK ETA NERABEAK INDARKERIAREN AURREAN BABESTEKO LOVIPI LEGE BERRIAK ZER AUKERA IREKI DITZAKE ESKOLAREN ESPARRUAN?

**L**OPIVI deritzona Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Babesteko Lege Organikoa da, gaztelaniazko sigletan. 2021ean onartu zuten, eta gehixeago zehaztuko da 2022. urtean. Autonomia-erkidegoetan eta tokian-tokian izango du eragina legeak. Pertsona heldu guztiok dugu haurrak babesteko aukera, bai eta betebeharra ere; eta haurrak dauden eremu guztiei eragiten die legeak. Artikulu honetan, eskolan zentratuko gara, haurrek denbora gehien pasatzen duten hiru eremuetako batean (familiaren etxebizitza eta aisialdi eta kiroltako guneak dira beste biak).

Eskolak eginga du jada ibilbide bat haurren babesaren eta tratu onen esparruan. Ezinbestekoa izango da haren esperientziaz baliatzea eta zenbait alderdi indartzea. Legea “zama” gisa hartu daiteke, edo aukera gisa. Zer baliabide, antolaera eta sentsibilizazio dugun, horren baitan egongo da guztia.

### Haurren babesaren dimentsioak

Hiru dimentsiotako proposamenen alde egiten du legeak:

1. **Prebentzio-lana**, haurrei tratu onak emateko.
2. **Haurren aurkako indarkeria-kasu izan daitezkeenak hautematea eta jakinaraztea.**
3. **Sareko lana** indarkeria-kasuetan.



### BEGOÑA RUIZ Psikologoa, hezitzailea eta Haurren Ongizatean aditua Bidegintza kooperatiban



Eskolaren kasuan, interesgarria litzateke:

- Irakasleak prestatzen jarraitzea, eta gaitasun jakin batzuk lantzea horretarako.
- Ikastetxeko proiektuan, bizikidetzatza-planetan eta zeharkako ildoetan xede horretarako landutako proposamenak eta ekimenak garatzen jarraitzea.
- Eskolak eta eskolako langileek horrelako egoerak hautemateko eta lagun egiteko beharrezkoak diren protokoloak izatea eta erabiltzea.
- Eskolak komunitatearekiko jarrera irekia izatea, familiekin, gizarte-zerbitzuekin, pediatriarekin eta beste baliabide batzuekin lankidetzan arituz.
- Eskolak jantokiko ordutegietan eta eskolaz kanpoko jardueretan txerztatzea hori guztia. Eta baita esparru digitalean ere.

Horretarako, **Haurren ongizatearen koordinazioa** indartu nahi da. Haren funtzioa lokarri izatea izango da, mobilizatzea eta baliabide, gaitasun eta ekintzak ahalbidetzea, haurrek tratu onak jaso ditzaten. Oraindik zehazteke dago nork beteko duen rol hori. Eskolako bertako norbaitek? Langileen zerrendan sartuko den irakasle espezializatu batek? Ikastetxeetan lan egingo duen gizarte-hezitzaile batek? Edonola ere, egokia dirudi berariazko prestakuntza duen eta haurrekin aritzen den norbaitek betetzea zeregin

hori, eta gaitasun jakin batzuk izan beharko ditu: indarkeriarik gabeko komunikazioa, sormena, adimen emozionala, pentsamendu kritikoa, elkarrizketarako jarrera, bitartekotza eta arazoan ebazpen positiboa.

Komenigarria litzateke **haurren ongizatea koordinatzeko taldeak** ere eratzea, eskola osoa sentsibilizatzeke.

Gainera, ikastetxeak gogoeta egin dezake haurrak babesteko barne-politikez, horrelakoak diseina ditza-ke eta gida gisa gauzatu.

### Haurren babesari buruzko printzipioak

Legea zenbait printzipiotan oinarrituta antolatu da, eta horien inguruko gogoeta egin dezakegu.

#### 1. Haurren eskubideen ikuspegia

Pertsona heldu guztiok haurren beharrei erantzuten zaiela bermatzeko ardura dugu. Eta, horrez gain, haien ongizate integralerako gaitasunak garatu ditzaten arduratu behar dugu. Besteak beste:

- Emozioak egokitzeko kudeaketa-gaitasuna.
- Tratu onerako trebetasun sozialak.
- Autobabeserako eta babeserako trebetasunak, gehiegikerien, jazarpenen eta abarren aurrean, halakorik izanez gero.
- Pentsamendu kritikorako, autonomiarako eta partaidetzarako gaitasunak.

Horretarako, eskolan egunez egun landu behar dira, zehar-lerro gisa, eta ez soilik lantegien edo unean uneko jardueren bidez. Eta helduok **eredu** izango gara. *Tratu onen ikuspegitik, zer-nolako giroa dugu guk, helduok, elkarrekin? Nola kudeatzen ditugu gure emozioak? Zer-nolako harremanak ditugu klaustroan? Eta familiekin? Nola konpontzen ditugu gure arteko gatazkak?*

#### 2. Indarkeriaren ikuspegi zabala

Badakigu indarkeria mota asko daudela: indarkeria fisikoa eta emozionala; indarkeria agerikoa, “ezkutukoa” edota inkontziente; offline ingurune indarkeria eta in-

gurune digitalekoa; helduek hurrei eragiten dieten indarkeria, haurren artekoa eta norberarekikoa... Legeak ez du berariaz aipatzen indarkeria “instituzionala”, baina hori ere berrikusi beharko genukeen kontua da. Eskola barneko indarkeria eta eskolaz kanpokoa daude. Eta gizarte guztiaren ardura da indarkeria mota oro desagerraraztea.

Haurren ondoan gabiltzan profesional guztiok, gure esparruan edo handik kanpo indarkeria-kasuak gertatzen badira edo horren susmorik badugu, egoera horiek jakinarazteko betebeharrak kualifikatua dugu. Gai horren inguruan sentsibilizatzen eta prestatzen jarraitu behar dugu, adi egoteko eta nola jokatu jakin ahal izateko.

#### 3. Tratu ona, azken xede

Modu prebentiboan haurrak ondo tratatuko dituen komunitate bat osatzearen aldeko ideia babesten du legeak. Ildo horretatik, sarean eta komunitatean lan egiteko aukera paregabea dugu. Ez soilik babesgabetasun-egoerak gertatzen direnean, baita horrelakoak gertatu aurretik ere. Esate baterako, eskolaren eta guraso-elkartearen arteko lankidetzak sustatuz, gurasoen gaitasunak indartzeko orduan.

Gainera, legearen barruan azpimarratuta dator gaitasunak barneratzeko, sentsibilizaziorako, prestakuntzarako, tratu onak sustatzeko nahiz gatazkak bake-bideetatik konpontzeko jarduerak txertatu beharra dagoela eskoletan.

#### 4. Haurrentzako ingurune segurua

Horrela definitzen du legeak: *“haurren eskubideak errespetatzen dituen eta babes-ingurune fisiko, psikologiko eta soziala sustatzen duena, ingurune digitala ere barnean hartuta”*.

Eta zer da babes-ingurunea? Indarkeriarik gabeko testuinguru bat etorriko zaigu burura lehenengo. Guztiok ezagutzen ditugu nabariak diren indarkeria moduak. Baina badaude modu “inkontzienteagoak” ere, haurrak emozionalki gaizki sentiaraziko dituztenak. Eta ez gara

## Komenigarria litzateke haurren ongizatea koordinatzeko taldeak ere eratzea. Eta gogoeta egin daiteke haurrak babesteko barne-politikez.

ari soilik haurren artekoaz. Irakasleengandik haurrengana zuzentzen dena ere badago.

Bidegintza gizarte-ekimeneko kooperatibaren *Tratu on ARTEan* kanpaina, honelako kasuak identifikatu ziren, besteak beste:

- Zigor gisa jolas-ordurik gabe uztea, edo psikomotrizitateko eskola-ordurik gabe.
- Ikasgelan oihu egitea ikasleari.
- Jolas-orduan haur batzuk beste batzuen kontra ari direnean ezer ez egitea.
- Ikasle batek azterketan nota txarra ateratu duenean, gainerako guztien aurrean esatea.
- Haur txikien gelara bidaltzea.
- Denbora guztian eserita egonaztea.

- Etxeko lan mordoa ematea eta jolasteko astirik ez uztea.
- Jangelan batzuek janaria botatzea eta, horren ondorioz, begiraleak zigorra guztiei jartzea.
- Zerbait puskatu denean eta nor izan den ez dakigunean, nor izan den “salatzeko” banan-banan guztiei “galdeketa” egitea.

Pepa Horno haurren babesaren esparruan adituak, inguruneen segurtasuna ebaluatzeke eta hobetzeko gida bat landu du. Eskolan ere aplika daiteke gida hori. Bi ekarpen garrantzitsu egiten ditu: adierazle zehatz batzuekin osatutako sistema bat darabil, eta testuingurua ikuspegi zabala batetik aztertzen du. Lau maila bereizten ditu abiapuntuan.

Lehen bi mailek eskolako testuinguru fisiko eta emozionalari egiten diote erreferentzia (*ikus 1. taula*).

Bidegintza gizarte-erakundeak hainbat urtetako ibilbidea du egina, eskolekin lankidetzan. Ikastetxeetan sustatzen diren jardueretako bat psikomotrizitate-saioak dira. Psikomotrizitate-gela hurrek oso maitea duten ingurune seguru baten adibidea da. Besteak beste, horrelako baldintza asko dituelako, ingurune emozional seguru gisa jotzeko baliagarriak direnak. Zoragarria litzateke “izaera” hori eskola-tes-tuinguru osora zabaldu ahal izatea.

Pepa Hornok hizketagai duen hirugarren mailak eskolako irakasle eta langileen gaitasunekin du lotura. Hauek nabarmendu ditzakegu, besteak beste (*ikus 2. taula*).

Hezkuntzan irakasleek izan beharreko prestakuntzarekin lotuta, honako betekizun hauek aipatzen ditu legeak:

- Irakasleei hurren eskubideei eta protokoloei buruzko etengabeko prestakuntza espezializatua ematea.
- Hurren babesari buruzko edukiak

txertatzea graduko ikasketa-plantean eta graduondokoetan.

- Ezaguerak barneratzea, esparru orokorreko eta esparru digitaleko eskubideei, segurtasunari eta erantzukizunari buruzko jarraibideak emateko hurrei eta nerabeei.

Pepa Hornok proposatzen duen azken maila hurrek eskolan duten parte-hartzearen benetako sustapenari lotuta dago. Hiru maila hauetan (*ikus 3. taula*).

Hurren parte-hartzearen printzipio hori sustatzearen alde egiten du legeak, argi eta garbi. Horretarako, hainbat prozesutan parte hartu behar dute: besteak beste, beharrak hautematerakoan, proposamenak diseinatzerakoan, proposamenak gauzatzekoan eta hori guztia eba-luatzerakoan.

Interesgarria izan daiteke parte-hartzearen esparruko lau eremu horiek kontuan hartzea adibide batzuen bidez: **eskolan, adiera zabalean hartuta; ikasleek egiten dituzten hezkuntza-ibilbideetan; jarduera edo proiektu jakin batean; komunitatean.** Horietako

bakoitzean ekintza zehatzak egin ditzakete.

**Ondorioak**

Bidegintzak urteak daramatza lanean, haurrentzat seguruak diren inguruneen esparruan eta haurrak babesteko barne-politiken garapenean. Gure komunitateko beste baliabide batzuekin eta eskolekin lankidetzan. Urte hauetako bizipenetan, gure hezkuntza-lanaren kalitatea hobetu dela egiaztatu dugu, eta hezitzaileen taldeak bere rol profesionalarekiko gogobetetasun handiagoa duela. Uste dugu apustu seguru dela, bai eta erronka bat ere.

Esan dezakegu Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Babesteko Lege Organikoa (LOPIVI) hobetu daitekeela hainbat alderditan. Ez dugu oso argi ikusten noraino irits daitekeen bere antolamendu-baliabideekin eta baliabide ekonomikoekin. Hala ere, aukera berdingabea da. Eskolan eta gizartearen hurrei eman beharreko tratua onen inguruan go-goeta egiteko eta arlo hori indartzeko aukera da. Balia dezagun aukera.

1. taula

MAILA	ADIERAZLEAK
INGURUNE FISIKOA	Eskuragarritasuna; istripu eta lesioen aurreko babesa; eskolaren kokapena, irisgarritasuna eta komunitatean duen integrazioa; teknologien kontrola eta segurtasuna; guneak modu egokian banatzea; komuneren antolaera seguruak.
INGURUNE EMOZIONALA	Temperatura; argitasuna; guneen dekorazio pertsonalizatua, hurren eskutik; jolas-elementu sinboliko presentzia, ikuspegi zabal batetik hartuta, segurtasun emozionalerako; guneen zabaltasuna, mugitu ahal izateko; musikarako ekipamenduak; natura-inguruneen hurbiltasuna eta haietara jotzeko aukera; janariaren balio “afektiboa” zaintzea.

2. taula

MAILA	ADIERAZLEAK
GAITASUN PROFESIONALAK	Afektibitatea bizitzea eta hurrei adieraztea; hurren komunikazio eta ikaskuntzako bide askotarikoetara egokitzea; arreta handiz zaintzea ikasturte hasiera eta amaiera; hurren eta hurrek jasan ditzaketen egonezinen ikuspegi zabala; irakasleen “erresonantzia” emozionalak lantzea; diziplina eta gatazken lanketa positiboa; hezkuntza emozionala, zehar-ardatz gisa; profesionalak beren burua zaintzea (nekearen erregulazioa, taldearen babesa, bakoitzaren alderdi emozionalen lanketa); benetako talde-lana eta komunitatearekiko; alderaketa, gainbegiratzea eta etengabeko prestakuntza; lidergo positiboa zuzendaritzan eta koordinazioan; indarkeria mota oro desagerrarazteko prestakuntza eta lana, aurrea hartzeko, hautemateko eta lagun egiteko protokolo, prozedura eta proposamenekin.

3. taula

MAILA	ADIERAZLEAK
PARTE-HARTZEA	Entzute aktiboa; parte-hartzea; protagonismoa.

# ARGITALPENAK



## C1 MAILAKO IDAZLANA ERRAZ EGITEKO 150 ARIKETA

Josu Erkiaga Laka

### ELKAR

Euskarako C1 mailako azterketako idatzizko proba egiten trebatzeko 150 ariketa eskaintzen ditu. Ariketak material errealetatik abiatuta prestatu dira, azken urteetan hainbat ikaslek HABEren azterketetan egindako idazlanetan oinarrituta. Askotariko ariketak proposatzen dira liburuan.




## HARI IKUSEZINA

Miriam Tirado - Aintzane Atela Gurrutxaga

### EREIN

Nurak zilborretik hari ikusezin bat irteten zaiola jakin du eta hari horrek, maite dituen pertsonekin lotzen duela: amarekin, aitarekin, aitona-amonekin, adiskideekin... Jada, haiekin ez dagoenean, ez du beldurrik izango hariaren bidez lotuta dagoelako. Ikusten ez diren gauzak garrantzitsuenak direla erakusten du liburua.



## XIRIMIRI

Fernando Pérez Hernando - Joseba Sarrionandia

### KALANDRAKA-PAMIELA

Euriak busti duen hegazti familia baten etxean elkarrengandik ikasteko eta elkar aberasteko aukera sortu da. Umeek batak bestearrengandik ikasiko dute, eta ama jakintsu bat izango dute, gainera, laguntzeko. Bokalak jolasteko baliabide bihurtu ditu egileak protagonista bakoitza bokal batekin loturik.



## ADI EGON!

Pantxika & Graxi Solorzano, Xano - Marko

### IKAS

Pedagogia tresna hau Pantxika Solorzanoren hamar kantu berritan eta ariketetan oinarritzen da. Gogoaren biltzen laguntzeaz gain, haurrek beren gorputzaren eta emozioen kontzientzia lantzea du xede. 1., 2. eta 3. zikloentzat pentsatua da eta helburuak eta jarduerak zehazten ditu.



## JAKIN 248-249

Hainbaten artean

### JAKIN

“Filosofiatik ezabatutako emakumeak” izenburupean datorkigu Jakin aldizkariaren ale berria. “Beauvoir eta Arendt ikasgai” eta “Egunen gurpilean” atalekin osatu dute hainbat egileren artean ondutako lana eta Dom Campistronek egin du kontrazaleko irudia.



## BASAJAUN ETA MUNDUKO BESTE LAGUN ILETSU BATZUK

Donald Navas Zeledón - Raquel Samitier

### DENON ARTEAN

Munduan bidelagun ditugun izaki fantastikoak ezagutzera gonbidatzen gaitu “Basajaun eta munduko beste lagun iletsu batzuk” liburuak. Geure kultura eta kondairak maiz uste duguna baino unibertsalagoak direla azaltzen digu eta Lurra zaintzera bultzatzen gaitu.

# PROPOSAMENA

## Euskadiko Orkestra

### Zuzeneko musikaren plazera

Musika klasikoan ardaztuta itxura serioa dute orkestra sinfonikoen, baina Euskal Herriko orkestrak aspalditxotik ari dira zuzeneko musikaren plazera mota guztietako entzuleei gerturatzen, eta tartean ikastetxeetako ikasleei eta familiei. Berariaz haientzat prestatutako kontzertu didaktikoak, pedagogikoak eta gertukoak eskaintzen dituzte.

**N**afarroako Orkestra Sinfonikoak, Euskadiko Orkestrak, Bilbao Orkestra Sinfonikoak, Iparraldeko Orkestrak eta hainbat udaletako musika bandek modu atsegin eta alaian erakartzen dituzte ikasleak urterotero geletatik areto handietara. Donostiako Kursaal, Bilboko Euskaldunan, Iruñeko Baluartean, Baionako Michel-Portalen edota Gasteizko Principal antzokian elkartzen dira musikariak eta ikus-entzule gazteak.

Orkestra guztien helburua entzule gazteak musikara gerturatzea da, eta Mikel Cañada Euskadiko Orkestrako Musika Gelaren koordinatzaileak zehazten duen moduan “kalitatezko eta zuzeneko musikara”. Kalitatearen definizioa subjektiboa izan arren, Cañadaren ustez orkestra horietako musikariek kalitatezko zigitua ematen diote, “musikari oso onak direlako bertan aritzen direnak eta goi mailako



interpretazioak egiten dituztelako”.

Ikasleentzat prestatzen dituzten kontzertuak haientzat bereziki diseinatutakoak izaten dira. “Gure kasuan adinaren arabera proposamen desberdinak egiten ditugu”, dio Cañadak. “Adibidez, luzerari

dagokionez, Haur Hezkuntzako umeentzako kontzertuek inoiz ez dute 40-45 minutu baino gehiago irauten eta Lehen Hezkuntzako azken urteetakoentzat eta Bigarren Hezkuntzakoentzat direnek gehienez ordubete”.



Argazkiak: Juantxo Egaña

Errepertorioari dagokionez, obrarik ederrenak aurkitzen saiatzen direla dio. “Ezaugarri jakin baten-gatik deigarriak diren obrak bilatzen ditugu: melodia polita dutenak, gogoraerazak direnak, txundigarriak direnak, ezaugarri erritmiko interesgarriak dituztenak... obra erakargarriak izan daitezela. Eta tartean intimistagoak, alaiak eta ez hain alaiak direnak, kontrastea dutenak... Nik beti esaten dut: umeentzat onenetik onena”.


Kontzertu didaktikoak, pedagogikoak eta gertukoak izateko beste baliabide bat ere erabiltzen dute: gaia eta gidioa. Gaurkotasuna duten gaiak bilatzen dituzten eta gai horiek balio batzuk transmititu ditzaten ahalegintzen dira. “Eta gidio horretan beste arte eta diziplina batzuk nahasten ditugu”, zehazten du Cañadak. “Adibidez, aurtan *Euskadiko Orkestra Cirkus* kontzertua egin dugu eta akrobata batek eta clown batek parte hartu dute, umore ukituarekin. Beste batzuetan dantzariekin, antzerki taldeekin, txotxongiloekin eta abar ere egin izan dugu. Istorioak batzuetan hitzekin kontaktatzen dira, bestetan dantzarekin, hurrena txotxongiloekin... eta horiek denak batzen dituen ikuskizun bat bilatzen dugu: musika, istorioa, proposamen

eszenikoa, argiztapena, transmititu nahi dugun mezua eta abar”.

#### **Irakasleentzako tailerrak**

Kontzertuetan gogotsu parte hartzen dute ikasleek, “ikaragarri gustatzen zaie” eta horri zukua ateratzeko aurretik lanketa bat egiten dute. Irakasleentzat tailerrak eskaintzen dituzte eta hainbat proposamen biltzen dituen gida didaktiko bat jasotzen dute. “Kontzertuan ikusiko dutena erabat agerian jarri gabe, nondik norakoekin berri ematen diegu irakasleei”, dio Cañadak. “Txotxongiloak ikusiko badituzte, aurretik txotxongiloekin aritzeko proposamenak eskaintzen dizkiegu; abesti bat kantatu behar baldin badute, abestia aurretik ematen diegu; proposamen erritmiko bat egitea nahi badugu, aurretik ikasitako etortzen dira. Oso proposamen praktikoak izaten dira eta irakasleek asko eskertzen dute material hori edukitzea”.

Urtez urte gero eta ikastetxe gehiago dira orkestren kontzertuetara joaten direnak, eta Cañadak azpimarratzen duenez, “asko dira urtero errepikatzen dutenak, fidelak dira eta hori seinale ona da. Gainera, guretzat garrantzitsua da ikastetxeek hezkuntza-bitarteko gisa ikustea kontzertu eta proposamen



#### **Euskadiko Orkestra**

[www.euskadikoorkestra.eus](http://www.euskadikoorkestra.eus)

#### **Nafarroako Orkestra**

##### **Sinfonikoa**

[www.orquestadenavarra.es/eu/](http://www.orquestadenavarra.es/eu/)

#### **Bilbao Orkestra Sinfonikoa**

<https://bilbaorkestra.eus/eu/>

#### **Iparraldeko Orkestra**

<https://www.bayonne.fr/eu/baionan-da/kultura/konpainia-profesionalak/iparraldeko-orkestra>

#### **Gasteizko udal musika banda**

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

hauek. Gurekin kontatu dezakete Euskadiko Orkestrara bisitan etortzeko, nola funtzionatzen duen ikusteko, bisita gidatuak egiteko, entseguak ikusteko... Ideia eta proposamenetara irekita gaude. Azken batean, irakasle eta ikasleentzat gertukoak eta baliagarriak izatea nahi dugulako”.

Ikastetxeentzat bideratutako kontzertuetara joateko ikasturte hasieran eman behar izaten da izena.

# ATZEKO ATETIK

---



## ESKUBIDEA BESTERIK EZ

### IRANTZU IDOATE FUNOSA

BAIONAKO BERNAT ETXEPARE LIZEOKO  
TERMINALEKO IKASLEA

**F**rantziar Konstituzioko hizkuntza frantsesa da. Hori da baxoko azterketatik gordeko dugun ikasgai nagusia. Hizkuntza frantsesa da, gainerakoa ilegal.

Seaskan ikasteko aukera dugunok gure bizitzako lehen urteetatik euskaraz ikasten dugu, ikastolan hasi, kolegioan segitu eta lizeoko azken urteraino. Ikastola euskaraz bizi, harremandu, hazi, hezi eta partekatze eremua da eta ez da Frantziar estatuak inposaturiko programetara mugatzen. Ikasi dugu ipuin bat euskaraz idazten, ikasi dugu dokumentu azterketa bat euskaraz egiten, ikasi dugu desmarta zientifiko bat euskaraz azaltzen, ikasi dugu filosofiako disertazio bat euskaraz garatzen.

Alta, 14 urte euskaraz ikasten pasa ondoren, kolegio bukaeran pasatzen den Brebeta edo gure ikas prozesu bukaerako azterketa den Baxoa ezin ditugu euskaraz pasa. Urte osoan zehar euskaraz landutako ikasgaiak azterketa egunean frantsesaz idatzi behar izaten ditugu. Hala ere, urte luzeetako borroka dela eta, gai batzuk euskaraz pasatzea onartua izan zaigu, hala nola, Historia, Geografia edota Matematikak. Baina, gainerako azterketen arazoak oraindik hor darrai.

Etengabeko zapalkuntza horien aurrean, Etxepareko ikasleok borrokan dihardugu, urteetan zehar egindako ekintzek pixkanaka bidea egiten baitiote euskarari. Azterketak gure hizkuntzan pasa nahi ditugulako, Ipar Euskal Herriko

ikasleek euskaraz ikasteko aukera zabala izan dezaten nahi dugulako, goi-mailako ikasketak euskaraz segitzeko aukera segurtatu nahi dugulako, gure biziko maila guztietan euskaraz bizitzeko aukera izan nahi dugulako aldarrikatu, aldarrikatzen eta aldarrikatuko dugu gure beharra asean izan arte. Bide honetan denon beharra dugu, ez delako borroka isolatua eta denak ukitzen gaituelako. Euskararen biziraupenerako ezinbestekoa delako denon borroka izan behar du.

Bada garaia horren irekia eta baloreduna omen den Estatuak bere ardurak har ditzan, nor bere hizkuntzan ikastea eskubide bat delako. Euskaraz ikasi eta bizitzeko aukera izan behar dugu eskubide bat delako. Eskubidea besterik ez.

# EGIN HARPIDETZA!

## ETA JASO DVDa EDO IPUINA OPARI!

Baliatu gure eskaintza berezia eta jaso urtean iRRiAren 10 ale etxean!!



### Irria aldizkaria ezagutu nahi duzu eta oraindik ez zara harpide?

Bete [www.irrienlagunak.eus](http://www.irrienlagunak.eus) webgunean topatuko duzun formularioa eta azken bi aleak jasoko dituzu deskargatzeko moduan.

HARPIDETZA EGITEKO AUKERAK:  
Telefonoz: 943 30 43 32 zenbakira deituz.  
E-posta: [harpidetza@irrienlagunak.eus](mailto:harpidetza@irrienlagunak.eus) helbidera idatziz.  
[www.irrienlagunak.eus/harpidetza-n](http://www.irrienlagunak.eus/harpidetza-n) izena emanaz.

# BADATOR ERALDAKETA LEHEN HEZKUNTZARA!!!

Graduondoko bi urteko formazio berria

